

hh  
hik hasi

Clara Eslava arkitekto eta  
pedagogoari elkarrizketa  
Pedagogo sortzaileak: Imanol Urbieta  
Euskal pailazogintza  
Jolas librearen garrantzia  
Abeletxea, Ekogunean  
Maika Etxekopar



Emaitzen bermea duen  
ikas komunitatea

JOAQUIM RUYRA

# TTARTTALO

Zaintza partekatua  
funanbulista baten ikuspegitik...

Séverine Vidal

Louis Thomas



HARIAREN GAINEAN

TTARTTALO



[www.ttartalo.eus](http://www.ttartalo.eus)

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## JOAQUIM RUYRA

Bartzelonako metropoliko ingurunerik pobre eta gatazkatsuenetariko batean dago Joaquim Ruyra eskola publikoa. Ikasleen % 92k jatorri atzerritarra dute eta ikasleen % 40k ez dute ikasturte osoa bertan egiten. Aurreiritzi guztien kontrara, ikasleek kanpo ebaluazioetan ematen dituzten emaitzak Kataluniako batezbestekoaren oso gainetik daude. Arrakastarako gilza, ikas komunitatea dute.

## ELKARRIZKETA / 18

### CLARA ESLAVA

Hurtzarroan eta heziketan espezializatutako arkitektoa da Eslava (Iruñea, 1972) eta bi arloak lotuz doktoretza ere egina du, hainbat publikazio argitaratzeaz gainera. Nafarroako Hezkuntza Kontseiluak antolatutako 'Hezkuntza eta espazioa' jardunaldietan izan da hitzaldia ematen. Bere esanetan, xedea litzateke gaurko heziketa ildoekin gutxieneko koherentzia maila bat duten espazioak eraikitzea eskoletan.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantazu Muñoz.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.  
**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.  
**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.  
**Inprimategia:** ANTZA S.A.L  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-03-14).  
Kopurua: 3.200 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

## 5 EDITORIALA

Eskolak funtzionatzen duenean

## 6 ALBISTEAK

## 10 GAI NAGUSIA

Joaquim Ruyra.  
Emaitzen bermea duen ikas komunitatea

## 18 ELKARRIZKETA

### CLARA ESLAVA

“Espazioaren egituraketak eskolan hainbat praktika txar saihesten lagun dezake”

## 24 EKARPENAK 1

Pedagogo sortzaileak:  
Imanol Urbietia

## 32 EKARPENAK 2

Euskal pailazogintza  
sozio-hezitzailea

## 36 GALDEIDAZU

### ITZIAR AGIRRE

Zer da jolas librea, eta zertarako balio du?

## 39 ARGITALPENAK

## 40 PROPOSAMENA

Abeletxea, Ekogunean

## 42 ATZEKO ATETIK

Maika Etxekopar

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



# Eskolak funtzionatzen duenean

## editoriala

JOAQUIM RUYRA ESKOLAN EZ DUTE INPROBISATZEN. EZ ZAIE PROBATUZ ETA ESPERIMENTUAK EGINEZ BERRITZEA GUSTATZEN. FUNTZIONATUKO DUTELA BADAKITEN JARDUERAK EGITEN DITUZTE.



Logela batean bizi diren bost kideko sendiak; auzoko liskar guztietan sartuta egon ohi diren familiak; guraso biak langabezian dituztenak; iritsi berri direnak eta bertako ez hizkuntza ez kultura batere ezagutzen ez dutenak; lapurreta egiteagatik edo drogekin trafikatzegatik behin eta berriz atxilo hartutakoak... Pentsa genezake 24 ikasleko gela batean, 22 haur horrelako testuinguru batetik datozenean, nekez eman daitekeela eskolarik, eta egin daitekeela ezer fundamentuzkorik.

Gure aurreiritzi eta estereotipoek “gaixoak...”, “familia horiekin...”, “sikiera hemen eskolan dauden denboran egon daitezela pozik...” eta antzeko pentsamenduetara eramán gaitzakete. Eta, bai, familiak eta testuinguru sozialak garrantzi handia dute haur baten garapenean, baina eskola ere oso inportantea da; kasu batzuetan, hil ala bizikoa bihurtzeraino.

Argi erakusten du hori Joaquim Ruyra Bartzelonako metropoli-eremuko ingurunerik pobre eta gatazkatsuenetako batean dagoen eskola publikoko jardunak, aldizkari honetako gai nagusian jasotzen den moduan. Haurrak ikastetxean zoriontsu izatetik haratagoko helburuak dituzte bertan: hurrek ikas dezaten nahi dute, emaitza onak eman ditzatela, nor izan daitezela, eta bizitzan aurrera egiteko baliabideak izan ditzatela. Eta horretarako sabaia oso goran jartzen dute eta ikasle guztiak euren onena ematera bultzatzen dituzte. Maximoen curriculumaz ezartzen dute ikastetxean, espektatiba altukoa, ikasle guztientzat. Haurrak gustura sentitzea nahi dute, bai, baina horrekin batera, ongizate eta zoriontasun horrek eraldaketa sozialerako balio diezaiela. Ez

daitezela egon gaur egun dituzten baldintzetan, edo are okerragoetan, bizitzera kondenatuta. Alegia, haur horiei ere eskolak aukera akademiko bat eman diezaien lan egiten dute.

Eta, Joaquim Ruyran ez dute inprobisatzen. Ez zaie probatuz eta esperimentuak eginez berritzea gustatzen. Funtzionatuko dutela badakiten jarduerak egiten dituzte, alegia, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta egituratzen dute euren eguneroko praktika pedagogikoa.

Eta jarduteko modu horrek eman ditu fruituak.

Joaquim Ruyrako ikasleen % 92k jatorri atzerri-tarra dute eta ikasleen % 40k ez dute ikasturte osoa bertan egiten. Uste guztien kontrara, ordea, bertako ikasleek kanpo ebaluazioetan ematen dituzten emaitzak Kataluniako batezbestekoaren oso gainetik daude, eta arlo batzuetan Kataluniako ikastetxe prestigiotsuenetakoak baino hobek ere badira. Ez daukate horretarako errezeta magikorik; bai, ordea, izen abizenak dituen lan egiteko modu bat: ikas komunitatea. Horixe dute arrakastarako giltza.

Zuzendaritza taldeak argi du: ikas komunitatea ezaugarritzen duten arrakastarako jardunbide guztiak zorrotasunez aplikatzen badira, eskolako errealitateak hobera egiten du, zentzu guztietan. Zorrotasunez eta zehaztasunez martxan jartzen den edozein eskolatan funtzionatzen duen erredua da, berdin Brasilgo faveletan edota Cambridgeko eliteko eskoletan.

Probatuta badago eta funtzionatzen badu, zergatik ez kopiatzen saiatu?

**“Pentsatu ohi dugu konplexuena Unibertsitatea dela, gero Bigarren Hezkuntza, hurrena Lehen Hezkuntza eta azkenik Haur Hezkuntza, baina alderantziz da”**

Juanjo Quintela



---

## SEASKAK MOBILIZAZIOAK IRAGARRI DITU FRANTZIAKO GOBERNUARI IRAKASLE GEHIAGO ESKATZEKO

Urtez urte goraka doa Ipar Euskal Herrian Seaskako ikastoletan izena ematen duten haurren kopurua. Datorren irailean, esaterako, 240 ikasle gehiago izango dituzte, eta, ondorioz, kalkulatzen dute 25 irakasle postu berri beharko dituztela sareko ikastola, lizeo eta kolegioetan egoerari behar bezala erantzuteko, eta irakasle igoera hori baimentzeko eskatu diote Frantziako administrazioari. Hasiara batean Pirinio Atlantikoetako Akademia ikuskariek 4,5



postu gehiago hitzeman zizkien Seaskako arduradunei, baina martxoan egindako azken bileran jakinarazi die ez dela halakorik gertatuko, Seaskak ez duela irakasle gehiagorik izango.

Horren aurrean, egoera "jasanezina" dela salatu du Seaskako lehendakari Paxkal Indok, eta harremanak eten dituzte Frantziako Gobernuarekin, haserre. Gainera, egoera salatzeko mobilizazioak iragarri dituzte datozen hilabeteetarako, tokian tokiko ekintzekin, eta horietan parte hartzea deitu du. Horrekin batera, Indok Ipar Euskal Herrirako hezkuntza arloan egitura propioa sortzea eskatu du: "Hitzarmen bat baino gehiago, Akademia ikuskari propioa behar dugu euskal hezkuntzaren beharrei erantzuteko". Seaskako zuzendari Ur Gorostiagak, bestalde, irakasle gehiagorik gabe ez dutela ikasturtea hasiko jakinarazi du, ikasgeletan sorturiko egoera ez litzatekeelako bideragarria: "Irakasle gehiago gabe, gela bakoitzean 50 ikasle lituzke Seaskak, eta edonork badaki hori ez dela hezkuntza, hazkuntza baizik".



---

## HEZITZAILE UGARI BILDU DA BILBON BEÑARANEN HITZALDIAN

Hik Hasik antolatuta, Alvaro Beñaran psikomotrizistak hitzaldia eskaini zuen Bilbon martxoaren 13an, *Nahastutako haurrak, helduen nahasmena* izenburupean, Harrobia Lanbide Heziketako ikastolan. Hitzaldiak hezitzaile eta irakasleen interesa erakarri zuen, eta 100 lagun baino gehiago bildu ziren ikastolara Beñaran entzutera.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

GREBAK EGIN DITUZTE HEZKUNTZA PUBLIKOKO NAHIZ GIZARTE EKIMENEKO ITUNPEKO ESKOLEN SAREKO LANGILEEK EUREN LAN BALDINTZAK SALATZEKO



ELA, LAB eta Steilas sindikatuek deituta, greba egunak izan zituzten martxoaren 14a eta 15a hezkuntza publiko ez-unibertsitarioko langileek, euren lan baldintzak hobetzeko eta hezkuntza publikoaren kalitatea bermatzeko eskatu asmoz. Bi egunetan mobilizazioak izan ziren EAEko hiriburuetan; jendetsuena, hala ere, martxoaren 14an Gasteizen hiru sindikatuek elkarrekin deituriko manifestazioa izan zen. Sindikatuen esanetan, irakasleen % 75k egin zuen bat greba deialdiarekin; Haurreskolen partzuergoan, % 30ak; sukalde eta garbiketa zerbitzuetako langileen artean, % 65ak; eta Hezkuntza Berezian % 60k. Jaurlaritzak, berriz, datuak xumeagoak izan zirela azaldu zuen: irakasleen % 44 inguruk egin zuen bat grebarekin; Haurreskoletako langileen %14k; sukalde eta garbiketa zerbitzuetako %18k; eta Hezkuntza Berezian % 26k.

Bestalde, martxoaren 20an grebara deitu zituzten CC00, ELA, LAB, Steilas eta UGT sindikatuek eskola kontzertatuetako langileak (ikastolen sarekoak izan ezik), lan hitzarmen berri bat aldarrikatu asmoz. Sindikatuek Kristau Eskolei eta AICERI leporatzen diote lan baldintzak negoziatzeko borondaterik ez dutela erakutsi. Deialdi honek ere jarraipen zabala izan zuen: sindikatuen esanetan, % 70etik gorakoa izan da, oro har, eta % 50etik gorakoa ikastetxe guztietan; eskola batzuk itxita egon ziren. Mobilizazioak ere izan ziren EAEko hiru hiriburuetan.

## 3 URTETIK AURRERA HAURRAK ESKOLARATZEA DERRIGORREZKOA IZANGO DA IPAR EUSKAL HERRIAN

2019-2020 ikasturtean hasita, 3 urtetik aurrera haurrak eskolaratzea derrigorrezkoa izango da Ipar Euskal Herrian, Jean Michel Blanquer Frantziako Hezkuntza ministroak jakinarazi duenez. Gaur egun 6 eta 16 urte bitartean da eskolatzea derrigorrezkoa Ipar Euskal Herrian, eta beraz, hiru urte aurreratu nahi dute orain. Ministroaren esanetan, neurriaren helburua da derrigorrezko hezkuntza hasi aurreko tartera "haurtzaindegi unibertsal ez bilakatzea" eta eskola "benetako berdintasun gune" izatea: "Ama eskolei izaera propioa ematea da helburua, haurren hezkuntzaz eta lengoaiaz arduratuko diren benetako eskola bilakatzea nahi dugu". Horrekin lotuta, ama eskoletako irakasleen prestakuntza hobetzeko neurriak hartuko dituztela iragarri du. Gainera, aldaketa honek 800 lanpostu berri sortuko dituela jakinarazi du ministroak.

Sindikatuek "neurri sinboliko" gisa baloratu dute Frantziako Gobernuaren asmoa. SNUIPP-FSU sindikatuko Francette Popineau-ren esanetan, jada adin tarte horretako haurren gehiengo eskolaratua dago, eta beraz, egungo errealitatea "ez da askorik aldatuko haurren eskolatze baldintzak aldatzen ez baditugu". Hala, ikasgiletako ikasle ratioa jaitea eskatu du, baita irakasleen formazioa hobetzeko neurriak hartzea ere.



## DATORREN IKASTURTEKO HAUR HEZKUNTZAKO 0-3 FORMAZIOAN IZENA EMATEKO AUKERA DAGO ORAINDIK



Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakontzeko asmoz, 260 orduetik gorako bi urteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean Hik Hasik, bere 6. promozioan.

Hainbat oinarri izango ditu formazio horrek: Emmi PIKLER; bestelako zenbait pedagogia BERRITZAILE: Loris Malaguzzi, Rebeca eta Mauricio Wild, Maria Montessori, Angelica Olvera, Rudolf Steiner...; formazio pertsonala, etab.

Ikaslerro horietan gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza.

Informazio osoa eta izena emateko aukera: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean. Informazio gehiagorako [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus)-era idatzi.

## GENEROAREN ETA HIZKUNTZAREN INGURUKO HITZALDIA EMANGO DU AMELIA BARQUINEK MAIATZEAN

Hik Hasi-k antolatuta, generoaren eta hizkuntzaren inguruko hitzaldia emango du Amelia Barquinek maiatzaren 9an. Hitzaldia Bilboko Harrobia Lanbide Heziketa Ikastolan izango da.

Filologia Hispanikoan lizentziatua da Barquin, eta Kulturarteko Hezkuntzan irakaslea Mondragon Unibertsitatearen HUHEZIn. Fakultate honetan bertan ELEA taldea koordinatzen du. Era berean, *Euskararen Erabilera Ez Sexista* monografikoaren egilea da, eta emakume eta gizonekin lotutako estereotipoak, eta beroriek hizkuntzaren erabileran duten eragina azalerratu ditu argitalpen horretan. Izena emateko eta informazio gehiagorako: [hikhasi.eus](http://hikhasi.eus).

## HARREMANAK GAITZAT HARTUTA 32. MONOGRAFIKOA ARGITARATU DU HIK HASIK

Duela urtebete egin ziren "III. Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldietan, harremanen inguruko gaia jorratu zen, Hik Hasik OinHerrirekin elkarlanean antolatuta. Sinetsirik, harremanak elkarbizitzaren erdigunean daudela, eta haiek nolakoak, halakoa izango dela elkarbizitza: osasuntsua edo ez.

Jardunaldi hark eman zuena aldizkari honekin batera banatu dugun monografikoan jaso da orain. Besteak beste, Lorea Agirrerren, Leo Pahkinen, Ane Ablanedoren, Miren Camisonen, Heike Freireren, edota Amelia Barquinen ekarpenak jasotzen dira bertan.

Monografikoa [hikhasi.eus](http://hikhasi.eus) webgunean dago salgai, 'Denda' atalean. Informazio gehiagorako [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus)-era idatz daiteke.





# HIZPIDE IZANGO DA

## HIK HASIK ANTOLATUTA, HEZKUNTZA HOBETZEKO GAKOAK EZTABAIDATZEKO SAIOA EGINGO DA APIRILAREN 21EAN

Hik Hasik Hezkuntza Proposamena aurkeztu zuen ikasturte hasieran, *Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogikoa eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak* izenburupean. Hezkuntza hobetzeko xedez, proposamen horretan jasotzen diren hamar gakoak gainean gogoeta egin eta eztabaidatzeko jardunaldia antolatu du Hik Hasik apirilaren 21ean egun osoz Donostiako EHU-n. Aipatu gakoak aurkeztuko dituzte zenbait hizlarik, eta ondoren eztabaida eta ekarpenei emango zaie lekua.

Izena emateko eta informazio gehiagorako [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunera jo daiteke.



## ARTEA, ILUSTRAZIOA ETA KULTURA BISUALAREN ALORRETAN BITARTEKARITZA HEZITZAILE KRITIKOAREN INGURUKO LIBURUA ARGITARATU DU EHU-K

*Arte, Ilustrazioa eta Kultura Bisuala Haur eta Lehen Hezkuntzan* izeneko Nazioarteko IV. Kongresuaren emaitzak liburu batean jaso dituzte Estibaliz Aberasturi, Amaia Arriaga eta Idoia Marcellánek, eta EHUk eman du argitara, *Arte, ilustrazioa eta kultura bisuala. Eskolaz kanpoko zein barneko bitartekaritzak hezitzaile kritikoa* izenburupean. Hiru eguneko jardunaldian, "garrantzia berezia izan zuten zenbait eragileren eta erakunderen arteko elkarlan prozesuak. Hala, bitartekaritzak sortzen duen prozesu mota aztertu nahi genuen, eta aukera bat eskaini erakunde artistikoen, argitaletxe proposamenen eta hezkuntza erakundeen artean ezar daitezkeen harremanen lurraldea esploratzeko", EHUren esanetan. Nazioarteko kongresuko ekarpenak eta ikasgelan buruturiko hainbat esperientzia inspiragarri bildu dituzte liburuan.

## PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALEAN FORMAIZIOA ESKAINIKO DU HIK HASI-K 2018-2019 IKASTURTEAN

0 eta 6 urte bitarteko hurrekin lanean ari diren hezitzaileentzako *Psikomotritate erlazionala: aukera berdintasunerako eta emozioen lanketarako* formazioa eskainiko du Hik Hasik, bigarren aldiz. Horretarako, gutxienez 13 laguneko eta gehienez 16 laguneko taldea osatu behar da.

Mapi Urresti Ortizek emango du formazioa. Psikomotrizista da Urresti, eta Kuttun psikologia eta osasun emozionalaren zentroko kidea da. 125 orduko formazioa antolatu du honek, "elkarrekin txertatzen diren hiru alor teoriko landuz": aukera berdintasuna, emozioen hezkuntza eta psikomotritate erlazionala. Teorikoki banatu arren, formazioan zehar hiru alor horiek momentu orotan egongo dira elkarrekin. Irailetik ekainera bitartean, hilero asteburu bat hartuko du formazioak.

Apirilaren 30 arte egongo da izena emateko aukera. Matrikula egiteko eta prezioen inguruko informazioa eskuratzeko, [hikhasi.eus](http://hikhasi.eus) webgunera jo daiteke.





Bartzelonako metropoli-eremuko ingurunerik pobre eta gatazkatsuenetako batean dago Joaquim Ruyra eskola publikoa. Ikasleen % 92k jatorri atzerritarra dute eta ikasleen % 40k ez dute ikasturte osoa bertan egiten. Aurreiritzi guztien kontrara, ordea, bertako ikasleek kanpo ebaluazioetan ematen dituzten emaitzak Kataluniako batezbestekoaren oso gaineratik daude. Ez daukate horretarako errezeta magikorik; bai, ordea, ebidentzia zientifikoetan oinarritutako lan egiteko modu bat: ikas komunitatea, eta horixe dute arrakastarako giltza. Zuzendaritza-taldeak argi du: ikas komunitatea ezaugarritzen duten arrakastarako jardunbide guztiak zorrotzasunez aplikatzen badira, eskolako errealitateak hobera egiten du, zentzu guztietan. Bertan izan dira Hik Hasi-ko kideak esperientziaren berri jasotzen.

# GAIA: JOAQUIM RUYRA

## Emaitzen bermea duen ikas komunitatea

**M**irari” hitzarekin deskribatzen dute batean eta bestean Kataluniako Joaquim Ruyra ikastetxeko errealitatea. Edonork barneraturik izan ditzakeen printzipio eta usterik sendoenak kolokan jartzen dituzte hango jardunak eman dituen fruituek eta bertako ikasleek lortu dituzten emaitzek.

Bartzelonako metropoli-eremuko ingurunerik pobre eta gatazkatsuenetako batean dago Joaquim Ruyra eskola publikoa: L’Hospitalet de Llobregat-eko Florida auzoan, hain zuzen. Ikasleen % 92k jatorri atzerritarra dute — 30 nazionalitate inguru ordezkatzan dituzte — eta ikasleen % 40k ez dute ikasturte osoa bertan egiten — ikasturtea hasita iritsi direlako edota kurtso barruan beste bizitokiren batera joan direlako —.

Aurreiritzi eta dogma guztien kontrara, ordea, bertako ikasleek kanpo ebaluazioetan ematen dituzten emaitzak Kataluniako batezbestekoaren oso gainetik daude, eta arlo batzuetan Kataluniako ikastetxe prestigiotsuena-takoak baino hobek ere badira. Ez daukate horretarako errezeta magikorik; bai, ordea, ebidentzia zientifikoetan oinarritutako lan egiteko modu bat: ikas komunitatea, eta horixe dute arrakastarako giltza. Zuzendaritza-taldeak argi dio: “Ikas komunitatea ezaugarritzen duten arrakastarako jardunbide guztiak aplikatzen badira, eskolako errealitateak hobera egiten du zentzu guztietan: maila sozialean, bizikidetzan mailan, maila akademikoan, ikasleen garapen pertsonalaren mailan...”.



Miquel Charneco eta Raquel Garcia, Joaquim Ruyra ikastetxeko ikasketa-burua eta zuzendaria, hurrenez hurren.

Zorroztasunez eta zehaztasunez martxan jartzen den edozein eskolatan funtzionatzen duen ereduak da ikas komunitatearena, berdin Brasilgo faveletan edota Cambridgeko eliteko eskoletan. Izan ere, mota guztietako testuinguruetan emaitza onak ematen dituzten jardunbideak zeintzuk diren probatuta dauka nazioarteko komunitate zientifikoak. INCLUDE-ED programaren bidez egiaztatu dira horiek Europa mailan eta erakutsi dute arrakastarako jardunbide guztiak seriotasunez ezarriz gero, eskolako funtzionamenduak hobera egiten duela.

Ikas komunitate bidezko funtzionamendua ebidentzia zientifikoetan oinarrituta dago, beraz, horixe izan da Joaquim

## GAIA: JOAQUIM RUYRA

E-mailzen bermea duen ikas komunitatea

Ruyran metodologia horren bidez lanean hasteko arrazoi nagusietako bat. Miquel Charneco eskolako ikasketa-buruak adierazten duen eran, ondo funtzionatzen dutela testatutako jardunbideetan oinarritzen da eta hori izan daiteke beste proiektu batzuetatik desberdintzen duena: “Europako Iparraldeko herrialdeetan lan egiten duten antzera jarduten dugu guk ere. Behin eta berriz jartzen da Finlandia adibide gisa, eta bertako ezaugarri nagusia da irakasleek medikuek bezala egiten dutela lan: artikuluko zientifikoetan oinarritzen dira, hau da, ez dituzte metodologiak asmatzen. Eta, gu, hemen, horretara ohituegi gaude”.

Joaquim Ruyrako irakasleek alemaniarrekin edota suitzarrarekin alderatzen dute euren lan egiteko modua. Ikasturte bakoitza, hiruhileko bakoitza, aste bakoitza, egun bakoitza eta ordu eta minutu bakoitza oso zehatz planifikatuta eta oso argi egituratuta izaten dute: “Guri, zuzendaritza-talde bezala, ez zaigu inprobisatzea gustatzen, ez zaigu probatuz eta esperimenduak eginez berritzea gustatzen. Guk funtzionatuko dutela dakigun jarduerak egin nahi ditugu”, zehazten du Raquel Garcia eskolako zuzendariak.

### Aldaketaren sustraiak, mende hasieran

2009-2010. ikasturtetik ari dira Joaquim Ruyran ikas komunitate bidez lanean. Baina ikastetxean lan egiteko modua aldatzeko premia lehenagotik hasi ziren sumatzen. 2003tik 2006ra bitartean Florida auzoko biztanleria erabat

aldatu zen, eta beraz, baita eskolako ikasleak ere: % 90 bertan jaiotak izatetik, % 90 kanpotik etorriak izatera igaro ziren. Alegia, ikastetxeko errealitatean, denbora gutxian, sekulako iraultza gertatu zen. Charnecok azaltzen duenez, ordura arte “emaitza onak” lortzen zituzten ikastetxeko ikasleek, baina euren zalantza nagusia zen, ikasleri mota berri harekin ere ordura arteko metodologiak funtzionatuko ote zien: “Merkatuan zeuden metodo ezberdinen bila hasi ginen, onenak hartu eta eskola-porrotari aurre hartzeko asmoz. Ez gara konformistak, ez genuen nahi betiko leloetan geratu. ‘Ai, gaixoak!’, ‘Dauzkaten familiekin...’, ‘Sikiera, izan daitezela zorientsu’... eta antzekoekin. Ez. Guk gure eskolako ikasleek emaitza onak ematen jarraitzea nahi genuen”.

2005. urtetik aurrera Kataluniako Hezkuntza Departamentuak eskaintzen zituen formazio-saio guztietara joaten hasi ziren, balioko zien “zerbait berriaren bila”. Teknologia berrietan, ingelesean, liburutegigintzan... formatu ziren, helburu jakin batekin: nola hobe dezakegu eskolako jarduteko modua? “Merkatuan ikusten genituen berrikuntza guztien gaineko informazioa jasotzen genuen”, dio Garciak. Eta, hala, talde kooperatiboetan lan egiten hasteko formazio bat jaso zuten. Baina horrek ere ez zituen ase: “Metodologia kooperatibo horrek umeak jatorriz dakartzan gaitasunak indartzen ditu, eta gu horrekin oso kritikoa ginen, eta ez zitzaigun guretzat metodologia egokia iruditu. Gure helburua ez delako umeak berez dakarren hori soilik sustatzea, baizik eta kompetentzia guztiak landu eta ikaslea denean gaitzea”.



## GAIA: JOAQUIM RUYRA IKAS KOMUNITATEA

Izan ere, haurrak zoriontsu izatetik haratagoko helburuak dituzte Joaquim Ruyran. Haurrak pozik sentitzea nahi dute han ere, baina horrekin batera, ongizate eta zoriontasun horrek eraldaketa sozialerako ere balio diezaien lan egin gura dute. Hala dio Charnecok: “Ez daitezela egon gaur egun dituzten baldintzetan, edo are okerragoetan, bizitzera kondenatuta. Eta aukera akademiko bat eman ezean, auzo honetan izango duten irtenbide bakarra dagoeneko ezagutzen duten hori erreproduzitzea izango da”.

Talde kooperatiboen bidezko lanketaren aurrean euren desadostasuna azaldu zutenean, formatzaileak berak esan zien Joaquim Ruyrako lan-taldea bila zebilen hori dagoeneko existitzen zela eta izen-abizenak zituela: ikas komunitatea. Bartzelonako Unibertsitatearekin kontaktuan jarri zituen eta Tarrasako eskola bat bisitatzeko aukera ere eman zien: “Joan ginen, ikusi genuen eta segituan ‘Bai! Hauxe da guk nahi eta behar duguna’, esan genuen”.

Gaur egun 3-12 urte arteko 420-30 ikasleko eskola da Joaquim Ruyra, 34 irakasleek dihardute bertan lanean. 2005ean aldaketak txertatzen hasi zirenetik 4 irakasle soilik mantentzen dira, eta horietatik 3 zuzendaritza-taldean daude. Raquel Garcia zuzendaria eta Miquel Charneco ikasketaburua horietako bi dira. Lehenak 6 urte daramatza zuzendaritza taldean eta bigarrenak 10.

Ikasturte honetan lehen aldiz konplexutasun handieneko eskola izendatu badute ere, eta horri esker, irakasleen egonkortasuna handitzea lortu duten arren, urtero izaten dituzte irakasle berri mordoxka, baita ikasturte barruan zehar ere, ordezkapenak egitera datozenak. Baina irakasle horiek ez dira besterik gabe lanean hasten, baizik eta Joaquim Ruyrako funtzionatzeko modua ezagutzen joan daitezten, lehenik eta behin, zuzendaritza-taldeak formazioa eskaintzen die, modu teorikoan nahiz praktikoan ikas komunitatea zer den jakin dezaten. Gainera, hastapenean, irakasle berri horiek ez dira inoiz bakarrik egoten, baizik eta dagoeneko ikas komunitateetan lanean denbora daramaten irakasle-kideen laguntza izaten dute, eta gelako ardura nagusia ere irakasle “beteranoek” hartzen dute.

### Arrakastarako zazpi gako

Nazioarteko komunitate zientifikoak testatutako arrakastarako hainbat jardunbide dituzte definituta ikas komunitateek. Horiek guztiak aplikatzen badira, eskolako jarduna nabarmen hobetzen dela probatu dute. Hori bai, Charnecok oroitarazten duen moduan, praktika horiek zorrotzasunez ezarri behar dira. Alegia, “ez du balio ‘gu ikas komunitatea gara’ esan, baina gero horietako batzuk erdipurdi ezartzea eta beste batzuei kasurik ez egitea”.

Jarraian zehazten diren jardunbideak dira ikas komunitateen arrakastarako giltzarri nagusiak:

**1. Talde elkarreragileak:** ikasleak taldetan banatzen dituzte, eta, ahal dela, talde bakoitzeko heldu bat jartzen dute. Joaquim Ruyran zehazki gela bakoitzeko ikasleak 4 taldetan banatzen dituzte. Mahaiaren bueltan, talde bakoitzeko 6-7 ikasle elkartzen dira, eta saiatzen dira ikasleekin batera talde horietako bakoitzean heldu bat ere egon dadin.

Beraz, ikas komunitateetan helduez hitz egiten dute eta ez irakasleez. Izan ere, irakasleek ez ezik, boluntarioek ere parte hartzen dute talde elkarreragileetan; gurasoak izan daitezke, praktikak egiten ari diren irakasle-gaiak, erretiroa hartutako irakasle-ohiak, aisialdiko jendea, edota umeen edozein senide zein auzokide. Hala argitzen du Joaquim Ruyrako ikasketa-buruak: “Talde elkarreragileetan lanean ari diren bitartean 4 taldeetatik 2k behintzat irakaslea alboan izan dezatela bermatzen dugu guk. Hortik aurrera, boluntarioen bat etortzen bada, pozik hartzen dugu eskolara, ikasle-taldearentzat sari handi bat delako, luxua, eta aitortza hori egiten diotelako”. Talde horietako bakoitzean, helduaren egitekoa dinamizatzea da, hau da, ikasleen lana sustatzea eta denbora aprobetxatzera bultzatzea.

Ikasleei dagokienez, berriz, talde horiek ahalik eta heterogeneoenak izan daitezen saiatzen dira. Horretarako soziogramak egiten dituzte eta horietan oinarrituz talde ahalik eta dibertsoenak osatzen dituzte, helburua baita elkarri lagunduz aurrean dituzten jarduerak modu kolaboratiboan burutzea. “Eurak dira ekintzaren subjektu, ikaskuntza eraikitzen dutenak. Hala, premia handiena izan dezakeen ikasleak ikusten du beste batzuek lagundu egiten diotela; solidaritatea bezalako balioak lantzen dituzte horrekin. Gainera, ikasteko eta jasotakoa barneratzeko ez dago modu hoberik egindakoa beste bati azaltzea baino”.

Talde bakoitza 20 minutuz ataza bat egiten aritzen da, eta ataza horiek arlo berarekin loturiko jarduerak izan ohi dira, baina bakoitzak dimentsio ezberdina izan ohi du. Adibidez, 4 jarduerak matematikaren eremukoak izan daitezke, baina horren barruan bat geometriarekin zerikusia duena, beste bat kalkuluko, hirugarren bat problemaren ebazpena eskatzen duena, eta laugarren bat estatistika lantzekoa... Hizkuntzarekin loturiko talde elkarreragilean, berriz, jarduera bat idatzizko adierazpenarekin zerikusia duena izan daiteke, beste bat ahozkoarekin loturikoa, hirugarrena irakurmenarekin eta laugarrena, esaterako, hizkuntzaren aberastasunarekin.

Beraz, haurrak, 20 minutuz jarduera bat egiten aritzen dira, arbelean kronometro bat jartzen dute, eta 20 minutu horiek igarotzen direnean, heldu erreferentea taldez aldatzen da.

20 minutu horietan ikasleek ataza hori egitea eta aurrean duten erronka gainditzea lortu behar dute. “Modu honetara lortzen duguna da 20 minutuz behin ikasleen burmuina berraktibatzea. Ikaslea ekintzan dago, eta ikasgai bat lantzen igaro ditzakeen bi ordu horiek ez daukate zerikusirik denbora hori irakasle bati entzuten igarotzearekin. Bigarren kasu horretan, ikasleak, apurka, deskonektatuz joaten dira”, argitzeko du Charnecok. Bestalde, ariketa horietako bi era autonomoan egiteko modukoak izan ohi dira. Hala, baldin eta boluntariorik ez bada etortzen, bi irakasleak jarduerarik konplexuenak egiten ari diren taldeekin aritzen dira.

Ikasketa-buruak gaineratzen duen legez, lan egiteko modu horrekin ikasleek intentsitate altuko ikaskuntzak bizitzea lortzen dute. “20 minutu horiek oso intentsuak izan ohi dira; gainera, irakasleok ‘egurra’ ematen diegu. Eta kronometroa arbelean dagoenez, presio pixka bat ere sartzen diegu denbora horretan euren helburua betetzea lor dezaten, ‘bost minutu soilik geratzen zaizkizue, mugi!’, esaten diegu”. Lehen ordubetean egiten zutena, orain 20 minutuan egiten dute Joaquim Ruyran eta denbora ahalik eta gehien aprobetxatzen dute, eskola-orduei zukua ateratzeko.

Orotara bi ordu igarotzen dituzte arlo espezifiko bateko lau jarduerak egiten. Nahiz eta atazako 20 minutu eduki, hasieran lau ariketen aurkezpena egiten dute, eta behin denak amaitutakoan saioa ixten dute ebaluazio bat eginez: nola funtzionatu duten, elkar lagundu duten, kolaboratu duten, aldamenekoa errespetatu ote duten, zein zailtasun izan dituzten, zer ulertu duten eta zer ez... baloratzen dute talde osoak bat eginda. Zaharrentxoekin, berriz, 20 minutuko ariketa bakoitzaren ostean, kortesiazko bost minutu ematen dizkiete helburu zehatz batekin: jarduera amaituta uztea. Izan ere, xedea da lau ariketak ondo itxita uztea bi orduak bukatzerako.

**2. Tertulia literarioak:** astean behin, ordubetez, klasiko unibertsalen inguruko tertulia literarioak egiten dituzte Joaquim Ruyran. Garrantzia ematen diote klasiko unibertsalak izateari, lan horiek gaurkotasan handiko gaiak jasotzen dituztelako eta gelan horien gaineko hausnarketak egiteko aukera ematen dietelako. Hala, *Tormeseko itsumutila*, *Odisea*, *Platero eta biok*, *On Kixote Mantxakoa*... eta antzekoak irakurtzen dituzte, adin bakoitzera egokitutako bertsioetan. “Haurrek etxera eramaten dute liburua, kapitulu bat irakurtzen dute, eta edozein arrazoirengatik arreta deitzen die paragrafo hura libretan apuntatzen dute eta baita zergatia ere. Gero, klasean bizipen horiek elkarrekin partekatzen ditugu”. Politikaz hitz egiten dute, doluaz, maitasunaz, gerraz... testuetan agertzen den edozein gaitaz. “Klasiko unibertsalengan gaur egungo edozein arazo sozialen isla ager daiteke”.

Txikiekin berriz, LHko 3. mailara artekoekin, etxera eramane beharrean, eskolan irakurtzen dute, ahoz gora. Baina horixe da diferentzia bakarra. Gainontzean, tertulia berdin-berdin egiten dute. Bereziki, emozioez hitz egiteko balio diete tertulia literarioek. “Ume hauetako askok bizipen andana izan dituzte. Batzuk toki batetik bestera ibili direlako eta izugarritzko ezagutza kulturala daukatelako. Behin gertatu zen, adibidez, testu baten harira, haurrak gaubeilaz hizketan hasi zirela. Oso aberasgarria da ikustea nola hegoamerikar batek esaten duen bere herrialdean gaubeila festa handia dela; eta beste batek kontrakoa”. Tertulia literarioek talde kohesioa sustatzeko ere balio dute, baita enpatia eta laguntasuna lantzeko ere.

**3. Senitartekoen formazioa:** jardunbide honen oinarria da eskola irekitzea helduak forma daitezen eurek beharrezko ikusten duten horretan. “Ez da eskolak familiei zuzendurik antolatzen duen zerbait. Ez. Hemen funtzionatzeko modua alderantzizkoa da”, dio Charnecok. Alegia, familiak eurak elkartzen dira eta eurek erabakitzen dute zer ikasi nahi duten edota zerk egiten dien falta: “Informatika ikasi nahi dugu, edota katalana, edo gidatzeko baimena ateratzeko prestatu nahi dugu”. Hala, eskolaren egitekoa da familiek beharrezko ikusten duten horretan formatzeko boluntarioak aurkitzea. Formazio-saio horiek haurrak eskolan dauden ordu berberetan egiten dituzte. Joaquim Ruyrako zuzendaritza-taldea saiatzen da sustatzen prestakuntza ordu horiek gauza praktikoak ikasteko izan daitezen, hau da, balio diezaiela gero eguneroko bizitzarako. “Haurrentzat oso indargarria da euren gurasoak ere formatzen ari direla ikustea. Asko baloratzen duten zerbait da, eta euren ere indarra ematen die ikasten jarraitzeko”.

**4. Ikasteko denboraren luzapena edo liburutegi tutorizatuak:** egunean sei irakastordu badituzte ere Joaquim Ruyran, arratsaldetan ordubete gehiagoz irekitzen dute eskola etxean lanak egiteko leku egokirik ez duten haurrentzat. “Kontuan izan behar dugu hemengo familia bat baino gehiago, osorik, logela batean bizi dela. Leku egoki bat ez badute, gero ezin diegu leporatu etxerako lanik egin gabe etorri direnik”. Beraz, helburua da konponbideak jartzea, eta etxean ez duten hori —espazioa, Internetarako sarbidea, liburuak...— eskolan eskaintzea, denbora gehiagoz ikasleentzat eta haien familientzat irekita edukiz.

**5. Komunitatearen parte-hartze hezitzailea:** irakasleen eta familia-kideen artean komisiio mistoak osatzen dituzte hezkuntzarekin zerikusia duen gai oro jorratzeko: informatikako komisiioa, eskolaz kanpoko ekintzen komisiioa, jangelakoa... “Eskola guztietan egon ohi diren betiko komisiioak dira. Kontua da guk familietara zabaltzen ditugula.

## GAIA: JOAQUIM RUYRA IKAS KOMUNITATEA

Izan ere, askotan gertatu ohi da eskolak zerbait antolatzea edo erabakiren bat hartzea eta gero familiengana jotzea galdetuz, ‘parte hartu nahi duzu honetan?’. Bada, gure jarduteko modua kontrakoa da. Hasieratik, familiekin batera egiten dugu lan, eta denon artean hartzen ditugu erabakiak, baina baita ardurak ere”.

Charnecok azaltzen duen eran, xedea da, eskolan egiten den oro familietara zabaltzea. “Demagun gurasoen artean zalantza sortzen dela biderketa ikasteko adinaren inguruan: ‘Zergatik ikasten da 3. mailan eta ez 2.ean edo 4.ean?’, bada gure egitekoa izango da horren inguruan hausnartzea eta argumentuak ematea gurasoei egiten duguna zergatik egiten dugun azaltzeko”. Izan ere, familiekin etengabeko harremanean daude Joaquim Ruyran eta haien kezkei nahiz proposamenei ere momentuan erantzuten saiatzen dira, alegia, ez daukate gurasoen harrerarako ordutegi jakin bat: “Eskola hainbatetan astean ordutegi hertsia bat ezartzen dute gurasoen galdera eta kezketzat. Niretzat hori gatazka gehiago sortzeko bidea besterik ez da. Ez dut imajinatu nahi zer gerta daitekeen ordu berean guraso mordo bat, bakoitza bere arazoekin, zuzendaritza aurrean elkartzen bada. Seguru gatazkak sortuko direla. Guk, ez. Guk arazoak momentuan lantzen ditugu eta irtenbideak bilatzen saiatzen gara. Bulegoan dagoenak, edozein ordu delarik ere, familiak artatzen ditu. Guretzat ezinbestekoa da hori. Familiekin dute lehentasun osoa”.

## 6. Gatazken prebentziorako eta soluziorako modelo

**dialogikoa:** honek esan nahi du komunitate osoa eskolako bizikidetzara arauen parte egitea. Eta horrek ez du esan nahi “nik eskola gisa arauak sortzen ditut, inposatzen dizkizut eta gero azaldu egiten dizkizut”. Ez. Horrek esan nahi du arauak komunitate osoaren artean sortzen direla. “Arau bat errespetatua izan dadin, zer hoberik norberak arau hori sortzen parte hartzea baino?”. Horretarako asanbladak egiten dituzte gurasoekin nahiz ikasleekin, ikastetxean zein gatazka dauden ikusten dute, biolentzia zer den eta zer ez aztertzen dute... eta horren guztiaren arabera elkarbizitza marko bat eraikitzen dute. Marko horren aterki gisa elkarbizitzarako arau nagusia adosten dute. Eta ikasturte honetan zeregin horretan ari dira Joaquim Ruyran. Arau nagusi bat izan liteke adibidez, ondokoa: ‘Ondo trata nazazun nahi dut, eskerrik asko’. Arau printzipal horrek aterki lana egiten du eta horren azpian sartzen da gainontzeko guztia. Funtzionatzeko modu asanblearioa da ikas komunitateen beste ezaugarrietako bat. Beraz, ez dute bitartekari figurarik, ezta ikasleak eskolatik kanporatzeko neurririk edota zigor-metodirik ere.

**7. Irakasleen formazio dialogikoa:** zuzenean ikas komunitateak ezaugarritzen dituen arrakastarako jardunbide bat ez bada ere, ikasturte honetan Joaquim Ruyran irakasleen formaziorako metodo dialogikoak erabiltzen hasiak dira. Hala, astean behin, liburu edo lan zientifiko baten gaineko tertulia pedagogikoak egiten dituzte irakasleek. Hau da, ikasleekin tertulia literarioetan egiten duten gauza berbera egiten dute maisu-maistrek ere.



## GAIA: JOAQUIM RUYRA

Emaitzen bermea duen ikas komunitatea



### Espektatiba altuko curriculum: sabairik ez ikasleentzat

Joaquim Ruyran % 100ean betetzen dute curriculum ofiziala, eta ez hori bakarrik, harantzago ere joaten dira. Izan ere, argi dute euren maximoen curriculum a ezarri nahi dutela ikastetxean, espektatiba altukoa, hain zuzen. “Curriculum ofizialak ikastetxe gisa bete beharreko minimoak ezartzen dizkigu eta guk horiek soberan betetzen ditugu. Ez daukagu inolako arazorik araudiarekin. Are gehiago: guri izugarri gustatzen zaigu kanpotik ebalua gaitzaten”, argitzen du Charnekok. Izan ere, ikas komunitateen berezitasunetako bat da datuak jasotzen oso sistematikoak direla: elkarbizitzaren ingurukoak, kompetentzien gainekoak... era guztietako datuak jasotzen dituzte. “Kanpo azterketen kontra daudela dioten eskolek errezeloa eragiten digute. Gure ikasleek, eskolatik ateratzen direnean, bizitzaren erronkei egin beharko diete aurre, eta guk horretarako prestatu behar ditugu. Eta argi izan behar dugu gaur hemen dauden haurrak egunero bizitzak berak ebaluatzen dituela eta ebaluatuko dituela etorkizunean. Beraz, guri ez digu balio azterketen kontra egoteak”.

Kanpo azterketak ez ezik, barne azterketak ere egiten dituzte Joaquim Ruyran euren eguneroko jarduna ebaluatzeko. Eskolarentzat GPS moduko bat izan ohi da: zertan ari diren asmatzen, zertan ez, irakasle batek zer daukan hobe-

tzeko, gela batek beste batek baino emaitza hobeak atera baditu zergatik izan daitekeen... eta antzeko hausnarketak egiteko balio die barne-neurketa horrek. Euren jarduna hobetzera eta are emaitza bikainagoak lortzera bideratzen dute ebaluazio hori. Zalantzan jartzen ez dituzten bakarrak ikas komunitateen arrakastarako jardunbideak dira, horiek berme zientifikoa dutelako eta ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren oinarri direlako.

Edozein kasutan, Joaquim Ruyran ia ikasle batek ere ez du errepikatzen ikasturtea. Izan ere, ez dute ikasleentzat sabairik jartzen, eta ikasle guztientzat espektatiba altuak ezartzen dituzte. “Askotan irakasleok mugatzen dugu ikasleek noraino ikasiko duten, guk irakasle bezala erabakitzen dugulako ikasle bakoitzak zer nolako gaitasunak dituen. Gu horrelako jarrerak saihesten saiatzen gara, eta ikasle guztiak ikaskuntza maximoetara esponitzen ditugu. Ikasleek guk imajinatu ere egin ezin ditugun gauzak dakizkitez. Lehen ikastetxe honetan ere ohikoa zen ezagutzak zatikatzea. Hala, ikasle bat kanpotik zetorrenean, gela arruntetik ateratzen genuen eta lehenik koloreak erakusten genizkion, gero 1etik 100erako zenbakiak, etab. Baina horrek ez dauka ikasteko modu errearekin zerikusirik. Beraz, hemen orain ez da inor gelatik ateratzen. Denak batera aritzen dira lanean. Erabat eskola inklusiboa gara, eta xedea da ikasle guztiek maila ona lortzea”.



# Boluntarioak, erreferente

**B**oluntarioak normalki ikasleen senitartekoak izan ohi dira, nahiz eta irakasle erretiraturen batzuek, auzokide zenbaitek edota praktiketara dauden irakasle-gaiek ere parte hartu. Joan den urtean orotara 100 familia-kide joan ohi ziren aldika, laguntza ematera. “Kontuan izan behar dugu inguru honetan bizi diren familia gehienek zailtasun handiak dituztela aurrera egiteko. Guraso batek egun batean lana izan dezake eta hurrengoan ez. Beraz, ahal eta nahi dutenean etortzen dira. Izan ere, boluntariotzako lanak ezin du obligazio izan, nahi duzulako egin behar duzu”, adierazten du eskolako zuzendari Raquel Garciak. Edozein kasutan, Joaquim Ruyrako eduki pedagogikoa ez dago boluntario horien mende. Boluntarioak joaten badira, denentzat hobe. Luxutzat hartzen dituzte, saritzat eta hori eskertzen dute, baina boluntariorik gabe ere eskolako jardunak aurrera egiten du.

Boluntariotzak abantaila asko ditu Garciaren aburuz. Horietarik lehena da familien inplikazioa lortzea. Hasteko eta behin, gelara sartzen dira eta euren seme-alabak zertan diharduten ikusten dute, eta are gehiago: jarduera horretan zuzenean parte hartzen dute. Gardentasun osoa dago, eskola familiei erabat irekita dago eta eskolan gertatzen den guztiaren parte izan daitezke. “Horrek familien konfiantza irabazteko eta haiengandik gertu egoteko balio digu. Era berean, familiek irakasleon lana ere baloratu egiten dute eta sinesgarritasuna ematen digute. Guraso askorentzat super-heroiak gara. Eta, gainera, eskolaren eta familiaren artean elkarlana badago, ikasleak ere egon behar duten horretara daude”. Ikasleentzat oso indartzailea izan ohi da gurasoak euren gela berean, eta batzuetan, talde berean parte hartzen ikustea. Askok sendotu ohi dituzte haurrak. Baina haur guztien senitartekoek ezin izaten dute boluntariotzaren parte hartu. Beraz, Joaquim Ruyran saiatzen dira bertan dauden kultura guztietako ordezkariaren batek parte har dezan, hala bai haurrak eta bai gurasoak barne hartuta eta lasai senti daitezten.

Boluntarioak, gainera, erreferente bihurtzen dira ikasleentzat bai eskola barruan, baina baita auzoan ere, eta horrek harreman sarea sendotzeko balio die: “Kontuan

izan behar da auzo honetako haur askok senitarteko gutxi dituztela alboan. Edota askotan konfiantzazko inor ez dutela. Beraz, eskolara datozen boluntarioak, sarri, euren heldu erreferentzial bilakatzen dira, eta eskolaz kanpo ere arazoren bat dutenean haiengana jotzen dute”.

Horrekin batera, boluntariotzaren beste abantaila bat da familiak formatzea etxean euren seme-alabei laguntzeko aukera izan dezaten. “Familia askok ez daukate baliabiderik euren seme-alabei etxerako lanekin laguntzeko. Beraz, talde elkarreragileetan boluntario gisa parte hartuz, irakasleok nola gidatzen dugun ikusten dute, nola sustatzen dugun ikasleena, gatazketan nola esku-hartzen dugun... hasieran zuzenean behatzen dute, eta, pixkanaka, parte hartzen hasten dira. Alegia, eginez ikasten dutela esan daiteke”. Hala, modu natural batean formatzen dira familiak. Beste aukera bat izan daiteke kanpoko aditu bat ekartzea eta hark hitzez adieraztea etxean seme-alabekin nola jardun, baina modu hori “artifizial” samarra litzatekeela dio Charnecok: “Kasu horretan, teoria bai, baina aplikazio praktikoa faltako litzateke”.

Komunitateko, auzoko, familien arteko... elkarbizitzari ere asko laguntzen dio boluntariotzak. Eskolak aukera ematen die guraso pakistandar bati, hegoamerikar bati eta magrebtar bati elkarrekin lanean aritzeko, eta horrek harremanak modu naturalean gertatzea ahalbidetzen du. Gero, auzoan ere elkar ezagutzen dute, agurtzen dira eta kontu batzuk esaten dituzte. Horrek guztiak inguruan gatazka gutxiago egotea eragin du. Horren adibide bat ematen du Garciak: “Lehen auzoan gatazkaren bat edo borrokaren bat egoten zenean, haurrek lehen pertsona kontaktatzen ziguten gertatutakoa; orain, berriz, esaten diguten lehen gauza da ‘ez da eskolako inor izan. Hau eta hori gertatu da, baina Joaquim Ruyrako inor ez dago tartean’, eta horixe da nabaritu dugun lehen aldaketa”. Harro kontaktatzen dute hori zuzendaritza taldekoek, esan nahi baitu eskolan landutako balioak eurenganatzaren ari direla ikasleak eta eskolatik kanpora ere euren identitatearen parte sentitzen dituztela. Proiektuaren eraldaketa gaitasunaren isla da hori. Ez dezala geletan eta eskolako jardunean soilik eragin, auzo osoko elkarbizitzan baizik.



“Espazioaren egituraketak eskolan hainbat praktika txar saihesten lagun dezake”

# ELKARRIZKETA:

# CLARA

# ESLAVA

---

## ARKITEKTOA ETA PEDAGOGOIA

Haurtzaroan eta heziketan espezializatutako arkitektoa da Eslava (Iruñea, 1972) eta bi arloak lotuz doktoretza ere egina du, hainbat publikazio argitaratzeaz gainera. Nafarroako Hezkuntza Kontseiluak antolatutako 'Hezkuntza eta espazioa' jardunaldietan izan da hitzaldia ematen.

### **Zer-nolako inportantzia dauka eskolako espazioak eta haren egituraketak haurren heziketarako?**

Etxeak bezalaxe, eskolak ere bizilekuak dira haurrentzat. Baina espazio hezitzaile ere badira, eta zentzu horretan, izugarritzko inertziak dituzte. Oraindik zenbait zentro iraganean iltzatuta daude. Haurren bi bizitokiak alderatzen baditugu — etxea eta eskola —, konturatuko gara gure etxeek askoz ere gehiago eboluzionatu dutela eskolek baino. Gure hurrek daukaten bizitzeko moduaren ikuspegitik begiratu bagenie, gaur egungo eskoletako espazio gehienei ez genieke inolako zentzurik ikusiko.

Behin hori esanda, argi dago espazioak pertsonen arteko harremanak

baldintzatu egiten dituela, eta harremanak direla heziketaren muina. Adibidez, muturreko kasu batean, espazioak harremanak oztopatu ditzake langa funtzioa egiten duelako. Beste adibide bat jartzearren, espazio handi bat ez baldin badaukagu, pertsona kopuru zehatz bat baino gehiago ezingo gara aldi berean elkartu. Edota, esate baterako, toki bat kanpoaldera irekitzen ez bada, ez dugu bistarik izango eta ezingo dugu urrutira begiratu.

Beraz, espazioaren nolakotasunak izugarri baldintzatzen du pedagogia.

Eskoletako espazioak eraiki ziren garaiko pedagogiarentzat ere zaharkituta zeuden; beraz, bi bider zaharkituta geratu direla esan dezakegu. Izan ere, gaur egun hezkuntzaren arloan

eredu bezala hartzen ditugun zenbait ildo pedagogikok jatorria XX. mende hasieran dute, eta ordurako ere zenbait eskola egitura ez ziren egokiak, atzera geratuta zeuden.

Beraz, helburua litzateke heziketa ildoek eta gaurko pedagogiek diotenari erantzuteko gutxieneko koherentzia maila bat duten espazioak edukitzea eskoletan. Gaur egun inkoherentzia begi-bistakoa baita.

### **Eta zer behar da pedagogiaren eta arkitekturaren arteko gutxieneko koherentzia maila hori lortzeko?**

Lehenik eta behin, termino kuantitatiboetan pentsatzeari utzi eta termino kualitatiboetan pentsatzera igaro behar dugu. Gaur egun, ume kopurua ez da arazoa. Gai hori oso inportantea izan zen garai batean, eta premia hari erantzun zitzaion. Baina gaur egun jaiotza-tasa baxuez ari gara hizketan. Ohartzen gara zentroen artean ere kompetentzia handia dagoela ikasleak lortzeko. Beraz, arazoa ez da ume kopuru handia, nahiz eta ratio altuez hitz egiten den eta, maila pedagogikoan, hori arazo bat den. Baina gaur egun ditugun azpiegiturei eta ume kopuruari begiratzen badiogu, hor ez dago arazorik.

Egia da oraindik ere eskola berriak eraikitzen jarraitzen dugula, xedea delako jendea bizi den lekuetan egoitea ikastetxeak, alegia, auzo berrietan. Hiri eta herrietan populazioak lekuz aldatuz joaten dira, eta auzoek zein inguruek bilakaera handiak izaten dituzte denbora gutxian. Baina azpiegitura asko daude dagoeneko existitzen direnak eta benetan aldatzeko premia dutenak.

### **Zein gako izan beharko genituzke kontuan eskolako espazio bat egoki berregituratzeko edota eraikitzeko?**

Gako horietako bat hirira edo herrira irekia egotea da, eta horrekin batera hezkuntza komunitatearen espazio sozial gisa hautematea eskola, bere osotasunean ulertuta hezkuntza komunitate hori: familiak, umeak, irakasleak, bestelako profesionalak... espazio sozial izateak ez du esan nahi leku handi bat behar dugunik, baina bai ohiko pasabide luze eta alde banatara irekitzen diren gela



hertsietatik haratagoko espazioetan pentsatzea.

Eskola gehienetan pasabide luzeak izan ohi ditugu, alde banatara hainbat gela dituztenak. Espazio horiek modu funtzionalean eraiki ziren garai hartarako, baina ez diete gaur egungo ikasleek dituzten premiei erantzuten. Xedea da, egitura horretatik alde egitea. Beraz, ikastetxeko arkitektura egoki batek, besteak beste, aipatu berri dugun espazio sozial hori eskatuko luke, eskolaren bihotza izango litzatekeena.

### **Reggio Emiliako eskoletako "plaza" izan daiteke adibidez?**

Bai, adibidez. Plaza horietan argazkiak egon ohi dira geletan egindakoa erakusteko, jolasari tokia egiten zaio, familiak eta irakasleak elkartzen dira... Reggioz gain, beste eredu bat Delft de Herman Hertzberger izan daiteke. 60ko urteetako eskola bat da, Herbeheretako. Bertan plaza antzeko espazio bat dago, baina ez da espazio zentrala ere, eskola haztea ahalbidetzen duen gune bat baizik. Alegia, eskola orain dena baino

handiagoa izan ahalko litzateke, baina espazio sozial hori edukitzen jarraituko luke. Beraz, plaza hori zentrala izan ez arren, bada leku garrantzitsua, bai arkitektonikoki, baina baita funtzionalki ere, helburu sozial batekin diseinatu zelako.

**Espazioa erreferente bat gehiago da, ezta? Alegia, heldua egon daiteke hor, ikaskideak ere bai, baina horiez gain espazioa bera ere erreferentziazko elementu bat da haurrentzat.**

Hirugarren erreferente ere deitzen zaio. Baina benetan hirugarren erreferentea ez da espazioa, baizik eta ingurunea, edota beste hitz batzuetan esanda, espazioak eta bertan dauden materialek osatzen duten ingurune horretan sortzen den giroa: ingurune horretan argi jakin bat dago, objektu batzuk daude, materialak, tenperatura bat, sentsoialtasun bat... ingurune konplexu batez ariko ginateke hizketan. Eta ingurune horretan faktore sentsoial, korporal, emozional... denak hartu beharko lirateke kontuan. Horrek guztiak osatuko luke hirugarren erreferente hori.

**Espazio egoki baterako puntu gako gisa aipatu dituzu hirira irekita egotea eta gune soziala izatea. Kontuan izan beharreko beste gakorik bada?**

Hirugarren gako natura litzateke. Hori funtsezkoa da. Utopikoa dirudi ideia horrek, eskoletan natura bertatik kanporatu baita. Baina benetan naturaren beharra daukagu. Eta kontua ez da soilik gizakiak naturarekin bat egin duenean bere jatorri naturalarekin harremanean sartzen dela, baizik eta horrez gain, kontuan izan behar dugu natura ikaskuntzarako iturri agortezina ere badela.

Ez dugu ahaztu behar errealtate guztiaren sorburua naturan dagoela. Zerbait artifiziala dela esaten dugunean, zerbait hori material natural prozesatu bat baino ez da. Beraz, gauzak ulertu nahi baditugu gauzen estruktura naturala ulertu beharko dugu eta kultura naturarekin elkarriketan eraikiriko errealtate bat besterik ez dela jakin. Bizi izan dugun eta ezagutu dugun kulturen, maila urbanistikoan behintzat, harra-pakaritzaren eta suntsiketaren kultura

ezagutu dugu. Eta, funtsean, eskoletan ere ideia berbera errepikatzen da: funtzionatzeko modu inbasibo bati erantzuten dio. Gizakiok modu inbasiboan ari garelako portatzen. Beraz, arkitektonikoki hezitzaileak diren eremuak sortu nahi baditugu, naturari leku egin beharko diogu.

**Adinartekotasunari bide ematea litzateke beste gako bat?**

Bai. Gelako espaziok eremu komunitarioak dira. Geletan komunitateak elkarrizketan daude. Taldeka izaten dituzte elkarrizketak, eta, talde horiek, ahal bada, belaunaldiartekoak izatea komeni da. Alegia, adinartekotasunak aberastasuna dakarrela ulertzen dugu guk. Horrek elkarrekintza positiboak eragiten dituelako guztientzat. Adibidez, zaharrenak gazteenari lagun egiten dio eta horrek txikiari ahalbidetzen dio berarentzat aurreikusita zegoen horretatik atera ahal izatea. Nagusiarentzat, berriz, bide ezin hobea da kooperazioa bezalako balioak barneratzeko, baina era berean, baita ikasteko ere. Zer hoberik beste bati gauzak azaltzea norberak ikaskuntza hori barneratzeko?

Baina gu kontrako bidean goaz. Drama bat da eskoletan gertatzen ari dena. Haurrak neurtzen ditugu hiru multzotan sailkatuta: “iristen ez direnak”, “iristen direnak” eta “gaintik daudenak”, eta finean, azken horiek ere errealtatean ez daude gainetik, zeren kanpo geratzen dira. Hortaz, norentzat ari gara egiten hezkuntza? Argi geratzen ari da eskola ez dela denontzat. Egia esan, eskola ez da inorentzat. Baina hobeto bizirauten dute ingurune horretan batzuek, batezbesteko batean sartzen direnek. Baina batezbesteko horretatik kanpo geratzen direnekin zer gertatzen da?

Lortzeko zaila dela badakidan arren, nire ustez, maila sozialean funtsezkoa da haurraren konfiantza izatea, horrek praktika pedagogiko guztia alda dezakeelako. Akaso, 0-3 urteko adin tartean zentzu horretan lan handia egin da, eta horren erakusle da espazioaren egituraketan ere haur-eskoletan egin izana aldaketa handienetariko batzuk. Adinak aurrera egin ahala, ordea, beldurrak hasten dira

“Helburua litzateke heziketa ildoek eta gaurko pedagogiek diotenari erantzuteko gutxieneko koherentzia maila bat duten espazioak edukitzea eskoletan. Gaur egun inkoherentzia begibistakoa baita”

“Arazo handienetariko bat da sistemaren ebaluazioa bilatzen dugula, eta, akaso, horixe da zalantzan jarri beharko genukeen erremintetako bat. Ebaluatzeke moduak zuzenean eragiten duelako gure irakasteko moduan, eta, ondorioz, baita arkitekturan eta espazioaren egituraketan ere”



ikasleen konpetentziekin, emaitzekin, ebaluazioarekin... Arazo handietariko bat da sistemaren ebaluazioa bilatzen dugula, eta, akaso, horixe da zalantzan jarri beharko genukeen erreminta klabeetako bat. Ebaluatzeke moduak zuzenean eragiten duelako gure irakasteko moduan, eta, ondorioz, baita arkitekturan eta espazioaren egituraketan ere.

**Espazio egoki baterako kontuan izan beharreko beste gakoren bat aipatuko zenuke?**

Azken gakoa litzateke haurrak eurak izatea eskolaren azken egileak, alegia, espazio hori eraikitzen amaituko dutenak. Eskola arkitektonikoki eraikita egon arren, osatugabe egongo da, haurrak bertan sartu eta euren ekintzen bidez osatzen eta eraikitzen amaitzen duten arte.

**Orain toki askotan espazioa eraldatzen ari dira; bereziki, paretak botatzen, baina badirudi haur guztiak ere ez direla eroso sentitzen espazio horietan; batzuk galdu egiten direla**

**edo babesgabe sentitzen direla.**

Nire ustez espazioak haurren heziketan laguntzeko erreminta bat gehiago izan behar du. Eta klaseak batzea ondo egon daiteke, baina horrek ez du esan nahi dena espazio bakar batean egituratu behar denik. Egitura horrek forma ezberdinak izan ditzake, eta, akaso bere baitan hainbat gela diferente ere bai. Garrantzitsua da haur bakoitzari bere lekua topatzeko aukera ematea, eta ez behartzea denak aldi berean eta toki berean egotera. Ezin dugu pentsatu paretak bota eta unitate karratu handiago bat eraikitzea denik helburua, hori ohiko ikasgela baten erreplika besterik ez bailitzatekeelako izango, eskala handiagoan. Formak esploratu daitezke, espazio berean hainbat txoko sortu, taldean jarduteko nahiz bakarka egoteko lekuak eraiki...

**Estetikari ere garrantzia ematen diozu espazio bat egituratzeko orduan, baina infantilizatu gabeko estetikaz mintzo zara.**

Bai, nire ustez hori hil ala bizikoa

da. Elikaduraren estetikaren ikur *Mc Donalds* baldin bada, ahatetxo horia litzateke estetika infantilizatuarena. Estetika horrek, ordea, ez dio haurren izateari erantzuten. Umeek izugarritzeko zehaztasun estetikoa erakusten dute, oso konplexua eta aberatsa, matizak ulertzen eta balioesten dituen... estetika sinpleak erabiltzea helduon sinpletasunaren edo sinplekeriaren seinale da, eta ez dauka haurren izatearekin zerikusirik.

Kontua da errealtatea oinarritzko eskema batzuetara murriztu dugula eta erabat sinplifikatu dugula umei eskaintzen dieguna. Haurrak aberastasuna eta konplexutasuna ulertzeko gai direla kontuan izan gabe, haien estetika bat sortu dugu. Baina estetika hori helduak asmatu du eta umeari inposatu dio.

Era guztietara ere, badaude gauza interesgarriak objektuen, jostailuen eta jokoaren diseinuan, eta horietako askok material naturalak erabiltzen dituzte. Eta nik ere material naturalen aldeko aldarria egingo nuke modu erradikalean, nahiz eta badakidan

plastikozko kalitatezko jostailuak ere badaudela —legoa, adibidez— eta horiek erabiltzearen kontra ezer ez daukadan.

### **Espazioaren eraldaketarekin hasi aurretik, baina, proiektu pedagogikoa kontuan izatea komeniko da, ezta?**

Bai, zeren gerta daiteke orain espazioaren transformazioa modan dagoenez, aldaketa batzuk egitea, baina inolako sendotasunik edo koherentziarik gabe zentzoko hezkuntza praktikarekin. Gainera, hezkuntza bihur daiteke lan-eremu bat arkitektura bezalako sektore batentzat, kontuan izanik sekulako krisia bizitzen ari den sektorea dela. Logikoa eta ulergarria da arkitektoen estudio batek espazio bat aldatzeko eta hobetzeko proposamena egitea, baina egitasmoa eskola komunitatearen barrutik ateratzen ez bada, eta proiektu pedagogikoari erantzuten ez badio, gerta daiteke eraldaketa guztia oskol edo azal hobe batean soilik geratzea. Eta oskol hobe horrek ez du zertan berrikuntzarik bermatu; aldaketak hobekuntza ekarriko badu, barrutik sortua izan behar du. Horrela ez bada, zentroa saltzeko erabiliko den marketin soilean gera daiteke guztia.

Espazio optimoak behar ditugu heziketa optimo baterako? Akaso ez. Baina, espazio baten egituraketak ere lagun dezake eskola batean hainbat praktika txar saihesten. Gerta daiteke jardun pedagogiko batean zenbait printzipio etiko markatzerako orduan, espazioak asko laguntzea. Onena litzateke espazio hori proiektu pedagogikoarekin bat etortzea, baina horrela ez den kasuetan, behintzat espazioa ondo egituratua badago, lagundu egin dezake aldaketa, eta, gainera, zenbait jardun txar muga ditzake.

Adibidez, gardentasuna nagusi den eskola batean praktika txar gutxiago egongo da. Alegia, espazio egoki bat, proiektu pedagogikoarekin bat ez datorrena, ez da ideala izango, baina garantista izan daiteke, zenbait jardura desegoki ekidin ditzakeelako. Esate baterako, ateko beira kartulina beltz batekin estaltzen duen irakasle batekin topo egiten dudanean, irakasle hori esaten ari zaidana da, ‘ez dut nahi ikus nazaten’, eta nire galdera

da, ‘hortaz, zer ari zara ezkututzen?’, ‘zer gertatzen da hain bortitza eskola barru horretan?’. Eta, beharbada, ez da ezer gogorrik gertatzen, balitekeelako irakaslearen beldurraren ondorio izatea kartulina beltz hori, baina aipatu bezala, gardentasuna nagusi den espazio batean horrelako praktikak saihestu egingo genituzke, eta irakasle hori, ezinbestean, modu hezitzaileago batean jardura behartuko genuke.

### **Gardentasunaren garrantzia aipatu duzu, eta horrekin batera malgutasuna ere defendatzen duzu.**

Bai, eta hori ere arkitekturaren oso modan egon izan den zerbait da. Baina nik ez dut malgutasuna % 100ean defendatzen. Elementu finko eta egonkor batzuk ere behar direla uste dut. Horretarako garrantzitsua da espazioa aldatzen hasi aurretik hausnarketa egitea eta erabakitzea zer elementu eduki nahi ditugun modu determinatuago batean. Horrek proiektu pedagogikoari berari ere irmotasuna emango liokeelako.

Argitu nahi nuke baita ere, Alfredo Hoyuelos Iruñeko haur-eskolen koordinatzaileak esan ohi duenaren ildotik, *malgutasuna* askotan gaizki ulertzen dugula, eta kontzeptu horrek ez duela esan nahi bakoitzak nahi duena egitea. Alegia, irizpiderik malguenak, sarri, zurrunenak bilaka daitezke haurren eskubideei dago kienez, horiek ez errespetatzea ekar dezaketelako.

Edozein kasutan, espazioaz bakarrik ezin da hitz egin. Espazio batean material bat jartzen dudanean helburu jakin batekin, orduan partikularizatzen da espazio hori. Beraz, materialak ere barne hartu behar ditugu eta giroaz hitz egin. Esfortzu handia egin behar dugu haurrei material pedagogiko interesgarriak eskaintzeko. Materiala zenbat eta aberatsagoa izan, umearen autonomia orduan eta handiagoa izango da.

### **Material aberatsaren adibiderik jar dezakezu?**

Buztina, adibidez. Buztinak sekulako aukerak ematen ditu eta lagun egiten dion heldu baten aldamenean haurrak sekulako ibilbidea egin dezake mate-

“Umeez izugarritzko zehaztasun estetikoa erakusten dute, oso konplexua eta aberatsa, matizak ulertzen eta balioesten dituen... estetika sinpleak erabiltzea helduon sinpletasunaren edo sinplekeriaren seinale da, eta ez dauka haurren izatearekin zerikusirik”

“Espazioaren eraldaketak, eskola komunitatearen barnetik sortua ez bada, ez du zertan hobekuntza bermatu. Zentroa saltzeko erabiliko den marketin soilean gera daiteke eraldaketa guztia”

rial horrekin. Beste adibide bat paretan zuri bat izan daiteke, non iman batzuekin edo post-it batzuekin guztiok esaten ari garen hori islatzen dugun, alegia, gure talde-gogoetak ematen duena isla dezakegu horma horretan. Beraz, bai adibide batean zein bestean material horiek dira espazioa sortzen eta osatzen ari direnak. Beste hitz batzuetan esanda, ukiezina den hori ari da espazio pedagogikoa definitzen.

# PEDAGOGO SORTZAILEAK

## IMANOL URBIETA

*Pedagogo sortzaileak* izeneko monografikoak eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta datorren ikasturtean emango du argitara edizio berritua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, adituen eta arituen eskutik. Imanol Urbietaren inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan zazpigarrena.

**H**asieran, haurrak oso urrun nabaritzen nituen. Hori ikusita aldatu nuen estiloa, garbi neukan egokitu egin behar nuela. Beharretik ikasten joan nintzen, haurrengana gerturatu, eta ibilian-ibilian ikasi dut”. Imanol Urbietak bere bizipenen bidez aurkitu zituen haur bat eta haren izaera definitzen dituzten elementu garrantzitsuenak:

- Mugimendua, haurren beharrik



**KONTXI AIZARNA**

**Irakaslea**



**JOSU TXAPARTEGI**


**Irakasle ohia**

naturalena. Erritmoaren bidez gaitasunak lantzeko proposamenak egin zituen bizitza osoan. Haurraren adierazmena kokatzen zuen lehen lerroan. “Balio erritmikoa gehiago landu beharko genuke eskolan” zioen. Metro-nomoaren agintekeria ere salatu zuen behin baino gehiagotan, eta, koadratura erritmiko matematikoari baino gehiago, bihotzari erreparatzeko aholkatzen zuen. Haur bakoitzak bere erritmoa duela zioen. Bide horretan, euskararen erritmoa errespetatzeko planteamendura iritsi zen, euskara armoniatsu eta erritmiko baten atzetik. Euskara-maila horren jabetza duen haurra prestatuta dago herritarrekin harreman sendo bat lortzeko etorkizunean. Euskararen musikaltasunari ere arreta osoa eskaini zion.

- Gorputza, haurraren tresna berezkoena. Haurraren gorputzetik abiatzen da Urbietak pedagogiari eskaini nahi izan dion ekarpenik sakonena. Haurraren gorputzak bere baitan gordetzen ditu garatzeko behar dituen sekretu guztiak; horregatik, gorputz horren atal guztiak lantzen saiatzeko proposamena egin zuen. Gorputz-keinuen munduan bizi da haurra lehenengo urteetan. Gorputzaren adierazkortasuna oztopatu edo eragotzi egiten dela



“Haurraren gorputzetik abiatzen da Urbietak pedagogiari eskaini nahi izan dion ekarpenik sakonena. Haurraren gorputzak bere baitan gordetzen ditu garatzeko behar dituen sekretu guztiak; horregatik, gorputz horren atal guztiak lantzen saiatzeko proposamena egin zuen. Gorputz-keinuen munduan bizi da haurra lehenengo urteetan. Gorputzaren adierazkortasuna oztopatu egiten dela salatu zuen, eta gorputzaren heziketa defendatu, hezitzaileen egiteko nagusi gisa”



salatu zuen Imanolek. Gorputzaren heziketak izan behar du hezitzailearen zeregin nagusietako bat. Dantzak edo elkarrekin eskua emanez sortzen diren mugimenduek bideratzen dute haurra beste haurrekin erlazioa ezartzera. Haurrari egokitutako dantza eta gorputz-mugimendu ugari sortu zituen.

- Jolaserako grina. Urbietak garrantzi handia eman zion haurraren oinarritzko elementu honi. Hortxe kokatzen zuen adierazkortasunaren hezkuntza. Bere pedagogia-lanen elementu nagusi bihurtu zen; haurrekin komunikatzeko giltza nagusi.
- Ahotsa eta kanturako atsegintasuna. Fonemen musikaltasuna lantzea proposatuz, errezitazio adierazkorren bidez... Kontzeptu baten esanahiari baino gehiago, soinuaren musikaltasunari erreparatuz, fonazio egokia landuz. Harmoniaren mundua aprobetxatuz taldearen kidetasuna pizteko.

Urbietak ez zituen oso gogoko erritmo-egiturarik edo melodiarik gabeko abestiak, ez zituen haurrentzat egokiak jotzen. Batez ere, musika haur guztien eskubidea zela aldarrikatu nahi izan zuen. Esaten zuen kantuan hasteko ez dela ezer apartekorik behar.

- Haurraren jakin-mina, fantasia eta irudimena, dena jakin nahia, guztia galdera bihurtzeko dohaina. Hortaz baliatzen zen Urbietaren haurrekin komunikatzeko. Begirada bakar batekin interpretatzen zuen haurraren nahia eta beharra nondik nora zihotan. Hor oinarritzen zuen haurraren progresioaren maila, eta berebiziko poza sortzen zion horrek. Urbietak balio handia ematen zien haur batek hobetzeko, aurreratzeko, fintzeko eta sakontzeko dituen ahalmenei, eta hortaz jabetuta, positibotasunean oinarrituta bideratzen zuen bere jardun pedagogikoa.

### Hasierako galdera

Haur bat indibidualtasun eta autonomia propioan heztea komeni da, edo hobeto da haurraren sozializazioari ematea garrantzi oso eta ia bakarra? Gaur egun, hainbat eskola-eredutan, norberaren eta *ni*aren garapenari eskaintzen bazaio ere ia garrantzi osoa (“zuk zurea zaindu behar duzu beste edozeren gainetik”), Urbietaren garaiko berrikuntza pedagogikoen alderantzizkoa erakusten zuten, alegia, batez ere haurren sozializazioa zaindu behar zela txikitatik, eta elkarrekin eta guztia partekatuz hezi behar zirela haurrak.

Bi helmugak –*nia* eta komunitatea– tentsioan mantentzearen aldeko hautua egin zuen Urbietak. Ez zuen galdu nahi haur bakoitzaren dohain, gaitasun edo ahalmen bat bera ere, eta bana-banako heziketa eta norbanakoaren garapenean sustraitua planteatu zuen, baina, aldi berean, haur bakoitza herritartasunean eta komunitatearekiko kidetasunean hezi nahi zuen sozializazioaren bidetik

“Haur osoa hartzen du kontuan Urbietak, eta ez haurraren ahalmen bat, gaitasun bat edo zaletasun bat. Haurraren gaitasun guztiak lantzearen aldeko hautua egiten du. Eta, horrekin batera, haurren iritziak errespetatzeko jarrera erakusten du”



ahalegin handienak eskatuz baita ere, hauxe esanez: haur bakoitzak izan dezala bere nortasuna ongi errotua eta finkatua, baina haur bakoitza bere inguruarekin eta komunitatearekin bat eginda senti dadila; ikasi dezala bere onena bere buruari eskaintzen, baina baita inguruari ere.

Ikuspuntu bikoitz hori izan daiteke gaurko munduari Euskal Herritik egin geniezaiokeen ekarpen pedagogiko interesgarri bat, nortasun handiko gizakiak ereitea eskatzen baitu datorren munduak eta, aldi berean, munduko bizidunak ahal den ongien eta bakean bizitzeko helburuekin saiatzea, bakoitzaren onena horretara bideratuz, haurraren dimentsio soziala sakonduz, baina jatorriz norberari dagokion nortasun propioari uko egin gabe. Dantza da adibide on bat: haurrak badaki bere bizipoza indartzen ari den neurrian inguruaren zoriona bideratzen ari dela. Eta alderantziz.

#### **Pedagogia praktikoa**

Oso praktikoa izan zen bere lan guztian Imanol Urbietak. “Edozein amak gurekin egin zuena egin dut” esaten zuen.

Haurren heziketan aritzeko erabakia hartu zuenean, egoera zaila aurkitu zuen: gaingitu ezineko beldurrak, autoritarismoak, euskara eta euskal

kultura amildegian barrena...

Horri aurre egiteko apustua egin zuen bere bizitza osoan Imanol Urbietak.

Aurrean zeukan haurra haur konkretu bat zen: gerra galdu zuen belau-naldiaren biloba, obedientziatzko harremanetan ohitua, erlijioa guztia-  
ren erreferentzia bihurtuta...

Haurrekin lan egitean, Urbietak bere haurtzarorako bidaia egin zuen, bere bizipen zoriontsuenak gogoratuz eta haur izateak dakarren guztia bere lanera erakarritz.

Horregatik erabili zituen bizitza osoan fantasia eta irudimena, eta bere lan pedagogiko guztian praktikan jarri zituen. Pedagogia irudimentsua eta sortzailea defendatu zuen.

Bere txikitako bizipenek konbentzitu zuten ezinbestekoa zela haurraren errespetuan jardutea, gizartearen barruan elementu ahulenetakoa baitzen hori. Urbietak eskatzen du irakaslea bera hurbiltzea haurraren-gana, ez alderantziz. Irakaslea sartzen da haurraren mundura. Eta, hurbilketa horretan, haur osoa hartzen du Urbietak, ez haurraren ahalmen bat, gaitasun bat edo zaletasun bat. Haurra bere osotasunean begiztatzea eta era horretan tratatzea izango da Urbietaren jardun pedagogikoaren oinarria. Haurraren gaitasun guztiak

lantzearen aldeko hautua, alegia. Eta, horrekin batera, haurren iritziak ere errespetatzeko jarrera.

Hor jaiotzen da *espezialistitis* dei geniezaiokeen gaitzarekiko azaltzen zuen mesfidantza. Berak nahiago zituen hezitzaile orokorrak, eta haurra bere osotasunean heztea izatea helburua, maistra-maisuak berak ere hezitzaile osoa behar zuelako izan. Eskola-ordutan haurraren arduraduna, noski, baina hori baino gehiago ere bai: gurasoen ordezkartizat eta herriaren ordezkartizat hartzen zuen Urbietak hezitzaile baten papera.

Gelako hitz-jario aspertuaz amaitzeko bidean, bertsolaritzaren bidea lehenesten zuen: hitz neurtuak, hitz interesgarriak, sentimenduei atxikiak, inguruan gertatzen diren gertakariez josiak, ahal bada doinuetan emanak, haurren begiak biribil bihurtzen dituzten esaldiak... Bide horretatik joatea aholkatzen zien irakasle gazteei, haurren pasibotasuna ekiditeko bidean.

#### **Pedagogia kritikoa**

Gizartearen eta inguruan sumatzen zuen euskal kulturaren desegitea eta hainbat pedagogiarekin atzerakoitasuna berdina sumatzen zituen Urbietak hezkuntza-munduan ere. Begien aurrean zituen haur haiek biharko

egunean kultura-industriak zabaldutako produktuen dastatzaile pasibo bihurtzerik ez zuen nahi.

Eskema zaharkituak han-hemenka, berritasunekiko jarrera itxia, diziplinan eta mendekotasunean oinarritutako ideologia. Betidanik ezarrita zetorrenetik aldaketa gutxi nahi zuen pentsamoldea. Gorputz-adierazpena, musikoterapia eta horrelako programei mesfidati begiratzeko zien ingurua. Sormenaren mundua askatasunez lantzeko erreparatuak sumatzen zituen, baina berak bazekien haurren eskubidea zela gaitasun guztiak jorratzea, eta bazekien, baita ere, aurrean ikusten hasia zen mundua sormenarena eta aldaketarena izango zela hein handi batean. Konturatu zen aldika sortzen zitzaizkion arazoak hezkuntza-sistematik bertatik sortzen zitzaizkiola. Sistemak edo botereak haurra berak nahi duen moduan hezi nahi duela, ez askatasunean. Ezinezkoa dela sistemarentzat haurren iritziak errespetatzea. “Arrikutsua da sistemarentzat haur berriztatua eta kontzientea sortzea, haur otzanak hezi nahi ditu”, pentsatzen zuen.

Noren zerbitzura gaude? Zer eskola nahi dugu? Zer jendarte motari erantzun nahi diogu? Zer eratakoa da suspertu nahi dugun kultura? Galdara horiek oso kontuan izan zituen bizitza osoan, hezkuntza irekia planteatuz eta jatorrizko euskal balioetan oinarrituz, haurren gaitasun guztiak garatu nahian, sistematik edo merkaturatik zetozen eskakizunei bakarrik erreparatu gabe. Eskolaren berrikuntzak ematen zion bultzada handiena.

Beste alde batetik, hasiera haietan ez zuen bere burua prestatuta ikusten bere asmoak aurrera ateratzeko, eta hainbat egile irakurritz aberastu zuen bere burua. Garaiko dogma pedagogiko batzuk alboratzea eta bere barnetik konbentzimendu batera iristera eraman zuen horrek: haurrari so eginez, ondorioztatu zuen jolasa zela haurren berezko adierazpidea. Jolasa zela tresna ezin egokiagoa haur baten garapen orokorra planteatzeko orduan.

Printzipio hori finkatu ondoren, aurrera egin zuen Urbietak, iturri horretatik ondorio guztiak atera nahian. Noraino, eta *babarrunfonoak*,

*potodunbak* eta *futafufonoak* fu eta fu astintzeraino, soinu haiek jaiarazi nahi zuen pedagogia-berrikuntzaren irudia aurreratzen baitzieten. Ohar bat egiten zuen Imanol Urbietak jolasei buruz: pixkanaka jolasak konpartimentuetan zatitzen ari garela esaten zuen, jolasaren mundua estutzen, laburtzen, murrizten... “Jolasak maite dituzten irakasleak nahi ditugu” esaldia jartzen zuen haurren ahotan.

Urbietak ez zuen inoiz honelako esaldirik esango: “materialik ez dago” edo “material gutxi dago gelan”. Kartoia, soka, egur batzuk, zinta batzuk... aski ziren ekintza berriak planteatzeko. Gorputzaren mila postura eta keinuk, edozein doinuk, hitzen soinuak, intonazioek... denek balio zuten haurren sentimenduak eta sentsazioak martxan jartzeko. Dendetan erositako materialak erabili ordez, inguruak eskaintzen dituen gauzekin aski zuen bere asmoak aurreratzeko.

Irakaskuntzak sarritan berarekin dakarren errutinaren aurka gogor ekiten asmoa izan zuen bizitza guztian. Gaur hala eta bihar beste era batera, hurrei ezustekoak emanez. Ez zituen maite asko luzatzen ziren ariketak, ez eta gelan errutinaz musika etengabe jartzea ere. Konbinazioen eta tartekatzeen aldekoa zen, haurren asperduraren lehen keinua sumatzen zuenerako hasten zen eskema berri bat antolatzen.

Bere jarrera kritikoaren azken adibide bat eskolako noten aurrekoa da. Oso zorrotza zen gaztetxoaren ahalegina, inplikazioa eta ardura eskatzean, baina nahiago izaten zuen noten bidez baino aitortza publikoaren bidez edo hitz baikorren bidez saritzea ahalegina. Noten beharrik ez zuen ikasle bakoitzaren maila ondo ezagutzeko. “Maisu nintzela, nik ez nuen inor gaitzesten, ez nuen inor kalifikatzen”... atipikoa zen.

### **Euskaraz eta munduari begira osa-tzen den pedagogia**

Urbietak gauzak garbi zeuzkan alor honetan. Euskara zen bere lan-tresna. Ondo zekien beste hizkuntza indartsu bati ateak irekitzen zaizkionean hura joaten dela nagusitzen.

Euskararen musikaltasuna ongi

**“Urbietak oso zorrotza zen gaztetxoaren ahalegina, inplikazioa eta ardura eskatzean, baina nahiago izaten zuen noten bidez baino aitortza publikoaren bidez edo hitz baikorren bidez saritzea ahalegina. Noten beharrik ez zuen ikasle bakoitzaren maila ondo ezagutzeko”**

zaintzeko eskatzen zuen. Haurrari doinuekin hitz egitea, *bla bla bla* monotono aspergarrietatik urrun. Euskara artifizialak baztertu nahi zituen haurrekin sortzen zituen harremanetan. Euskara giro afektibo batean kokatu nahi zuen. “Gaurko haurrek ez dute graziaz txiste bat kontatzeko ere” esaten zuen.

Obligazioetan eta beharrianetan oinarritu beharrean, nahiago zuen pedagogia aberats baten alde egin, eta musikaz baliatu zen horretarako bere bizitza osoan. Doinuak, erritmoak eta azentuz bustitako euskara maite zuen. “Konturatu nintzen musikak aukera berezia eskaintzen duela euskara lantzeko” zioen. “Onomatopeiaz eta soinu magikoz betetako hizkuntza zela euskara.” *Potelen zeli kaiku zahar* edo *perolin perolan txoriak txin-txin txan-txan* esaldiek esanahi izugarria baitzuten haur txiki baten belarrietan. “Oraintxe dugu hizkuntzari berezko jantziaren grazia itzultzeko garaia” idatzi zuen.

Euskara horrek ematen zion bidea munduaren aniztasuna eta aberatasuna haurren begietara ekartzeko. Munduarekiko begiradak zuzentzen zuen Urbietaren euskal pedagogia. Hauxe idatzi zuen: “Nirea zurea da,

## PEDAGOGO SORTZAILEAK: IMANOL URBIETA

zurea nirea da, eta biona guztiona da”. Guztiona: hitz horretan dago Urbietaren unibertsalismoaren enborra. Haurra bere herrian sendo ikusi nahi zuen, eta, aldi berean, haurrak bere ekarpena mundu osora zabaltzeko modukoa izan behar zuela jakitea nahi zuen. Kantianoa eta modernoa, zentzu horretan: “Haurrekin kantatzen dugun kanta bakoitzean mundu osoa dago barneratuta”. Asmatu zituen kantak partikularrak bezain unibertsalak bihurtu zituen Urbietak. Euskaldun haurrari ongi egokituak eta, aldi berean, munduko edozein haurrek –itzulita– gustura abesteko modukoak.

### **Pedagogia autonomoa eta parte-hartzailea**

Autonomia dago Imanol Urbietaren pedagogiaren oinarrian. Pedagogoa bakoitzaren nortasun propioa. Metodologia guztia ere aplikazio horretan finkatzen zen: “Adibide batzuk jarriko ditut, baina hezitzaileak bere estilo propioa landu behar du lehenbailehen eta ausardiaz”; hori zen bere aholku errepikatuena.

Gaurko lan pedagogikoa erreteetan eta ohituretan oinarritzen da hein batean, baina berak tinko heldu zion hezitzaile bakoitzak bere bide propioa eraiki behar zuelako ideari. Inguruarekin, gurasoekin eta lanki-

deekin bat eginez, baina bere askatasun propio eta berezituari eutsiz. Horrela, pedagogia mota partekatua eta askatasunean oinarritua egitearen aldeko hautua egin zuen. Horixe da Urbietaren ideia pedagogiko sakonetako bat: haur bakoitzaren nortasun propioa sendo lantzearekin batera, taldeetasunaren emaitza ongi zaintzea. Nortasun indibidual sendo bat eta taldearekiko konpromiso osoa izatea. Biak aldarrikatu zituen Urbietak eginkizun pedagogikoaren oinarri gisa. Pedagogia parte-hartzailea eta lankidetzazkoa.

Horrez gain, haurraren garapenaren etapak ez erretzea aholkatzen zuen. Askotan errepikatzen zuen haurra hasierako urteetan pertzepziotik bizi dela, eta ez dugula presarik izan behar kontzeptuen eta abstrakzioen munduari ahalik eta lasterren lotzeko. Irakasleari esaten zion konprenitzen zuela irakaslea arrotz sentitzea batez ere keinuz, zertzeladaz, mimikaz adierazten den haurraren aurrean, helduok gure mundu abstraktuan lasai bizi baikara.

### **Belaunaldi berrien hezitzailea**

“*Apasionado constructor de niños*” deitu zion Oteizak. Urbietak zerbait ongi egiten baldin bazekien, haurrekin komunikatzea zen hori. Dohain berezi bat zuen horretarako. Haurre-

kiko komunikazio erraz horrek abantaila handiak ditu heziketa-lanetan, haurrak komunikazioa beharrezkoa baitu. Eta komunikatzea bere modura, berak nahi duenean eta nahi duen bezala, bere erritmoan... Urbietak bazekien sekretu guztia hortxe zegoela, haur bakoitza nolakoa den asmatzean, bere nortasunarekin bat eginez aurrera egiten laguntzean.

Horregatik, haur guztiarekin batera lan egitea atsegin zuen. Urbietak ederki zekien batzuk abilagoak zirela adinari begira, edo dohain bereziak zituztela batzuek eta besteek. Horregatik, ahalegin berezia egiten zuen guztiak errespetatzeko eta bakoitzaren ahalegina txalotzeko; eta, ahal zuen guztietan, haur batzuk besteen aurretik jartzea edo konparaziotan ibiltzea saihesten zuen. Ez zuen batere maite haur bat zokoratzea edo haien arteko lehiaketak bultzatzea. Galtzeari eta frustrazioari aurre egiteko formulak eskaintzen zituen.

Urrundu egiten zen haurrari dena eginda emateko joeretatik edo gauzak errazegi lortzeko inguruan sumatzen zituen jokaeretatik. Esfortzuaren eta lanaren balioa garbi adierazten zien haurrei. Ardurak hartzearen garrantziaz hitz egiten zien, eta bide horretatik planteatzen zituen jolasak eta gelako lanak ere.

Ausardiaz jokatu zuen Urbietak haurren aldeko lana aukeratu zuenean, bai eta haurrekin hara eta hona bidaiatuz, ikasgai onena gauzak bertatik bertara ezagutzea zela konbentzitu zenean.

Esan daiteke aitzindaria izan zela haurrari zuzendutako metodo pedagogikoetan; ederki barrundatu zituen hark orain normalak ikusten ditugun eskolako antzerkiak, txotxongiloak, aho-korapiloak, poesiak, pailazokeriak... Pertsona librearekin sortzea jarri zuen helburu.

### **Pedagogia integratzailea**

Euskara zuen ardatz Imanol Urbietak. Baina ez zuen haur bat bera ere horregatik baztertuko. Euskalduna ez zen haurrarentzat ere asmatuko zituen beste baliabide batzuk, haurra lehenbailehen taldekide senti zedin. Keinu-hizkuntza unibertsala erabiliko zuen horrelakoetan haurraren gana



hurbiltzeko. Haur euskaldunari abantaila kultural guztiak ematen saiatu zen, bere herrian inongo arazorik gabe bere euskalduntasunean bizitzeko prestatuz.

Euskara ama-hizkuntza ez zutenenganako jarrera abegi onekoa zuen berdin-berdin. “Keinua adierazpide unibertsala da, hotsek ederki jantzen badute keinu hori... ondorengo hitza zein hizkuntzatan ematen den erlatiboa da, eta horrela askoz errazago lortuko ditugu helburuak.” Etorquina den haurra hotsez eta keinuz prestatu dugunean, hitza jasotzeko lan erdia egina daukagu. Gure herrian gure arteko beste bat bihurtzeko bidea erraztu dugu, horrekin batera gure kulturaren alderdi goxoenak eta interesgarrienak eskaintzen dizkionean.

Euskara ikasteko beharra modu sotilean baina sendo adieraziko zion berarengana zetorren guraso bati; hori zuen eskaera bakarra. Beste guztirako, gizakiok partekatzen ditugun balioetan oinarrituta egiten zuen bere heziketa-lana: jendarteratzea, funtzio sinbolikoa lantzea, adierazpen plastikoa, jolas-motrizitatea, abstrakzio-rako gaitasuna...

Boskimano batek ulertzeko moduko esketx laburrak egitea proposatzen zuen: keinuen edo onomatopeien grazia landuz, euskaldunak, erdaldunak, eskimalak edo zombi batek, denek ulertuko duten kode zabal batean saiatuz txikitatik, mintzaira unibertsal batean. Gero etorriko da hitza, zenbaitetan baztertzaila bihurtu daitekeena.

Hor ere egin zuen bere ekarpena: “Hizkuntza kantuz eta ipuinez irakastea komeni da”. Ekidin hitz-jario aspergarriak, erabili jolasa etengabe komunikazioa errazteko. “Zoazen lekura zoazela, musikarekin bazoaz, ateak irekiko zaizkizu” esaten zuen, beste kulturekin topatzeko bidean musikaren ekarpen integratzailea azpimarratuz.

### **Pedagogia musikala**

Musikari garrantzi handia eman zion, eta alderdi hori seriooki balioetsi zuen bere lanean. “Ni ez naiz musikaria” esanagatik ere, musikaren bidez haurrekin lortzen zuen

loturarekin txundituta zegoen, hor sortzen zen hizkuntza komunarekin harriturik. Musika, pedagogia eta psikologia loturik tratatzea atsegin zuen Imanolek. Dena elkarrekin ikusten zuen: kantuaeren hitza, arnasketen erritmoa, ahoskatze garbiak, melodiaren gaitasuna, musikaren eta euskararen arteko harremana, onomatopeiak... Musika-ikurren ikasketa hutsean gelditzea ez zuen maite; jolaserako, antzerkirako, dantzarako edo ipuinetarako erabiltzea zuen atsegin. Eta ugaritzen ari ziren musika-espezialistak ere bide horretan animatu nahi zituen. “Ez dut musikaren ‘irakaskuntza’ gaitzesen, baina garrantzitsuagoa da adin horretako haurra musika egiteko eta musikaz gozatzeko gaitzea” esaten zuen. Musika-hizkuntza ikasteko ere proposamen (Xirula Mirula) propioa egin zuen.

Haurraren zerbitzura jarri zuen musika, ez alderantziz. Musika bitarteko gisa, sekula ez helburu gisa. Musikari onak ateratzea ez zen bere pedagogiaren helburua. Musika haur guztien zerbitzura ipintzea bai, ordea. Haur guztiak kontsideratzen zituen gai musika egiteko eta harekin gozatzeko. Eta sinesten zuen musikak haurrari eskolako eta inguruko bizitzan txertatzen lagunduko ziola. Haurraren bihotza erritmoz eta musikaz emandako hitzezko adierazpenek mugitzen zutela zioen.

Entzumena, erritmoa, ahotsa eta musika-tresnak; horrela bereizten zuen bere egiteko era musikala. Eta zati guztiak osotasunean bildu nahi zituen, mosaiko baten antzera: “Irakaslea kantuan, gero ipuina kontatzen, haur baten zapatak lotzen, beste baten zinta korapilatzen, orain pailazokeriatan, geroxeago mago edo terapeuta moduan haur bat lasaitzen, lurrean etzanda, gitarra joz, beti irudimena landuz, hori da bidea” zioen Imanolek.

Ezaguna da haurrentzako kantagintza berritzeko eta eguneratzeko egin zuen ahalegina. Ikusten zuen antzinako kanta haien egitura musikala eta hitzak ere gorde behar zirela, baina altxorra era berriekin aberastea komeni zela; horrela, doinu eta hitz berriak zientoka asmatu zituen. Kon-

**“Zerbait maite bazuen Urbietak, hauxe zen: haurra gelatik atera eta herrira eramatea, herriko giroan sartzea, haurra txikitatik herritartzea, bazter berriak erakustea. Herriko festak eta ohiturak baliatuz, poz handiz elkartzen zituen herriko haurrak, gazteak, helduak eta aiton-amonak”**

tua zen haurren interesekin lotzea, bat egitea, haurrekin konektatzea. Horrela formulatzen zuen bere kezka: “Musikariaren artean, artea gehiegi landu da eta pertsona, berriz, oso gutxi”. Geografia edo Ingurunea erakusteko orduan ere ipuinen eta kantuen birtartez lortzen zituen emaitza onenak. Atsegin bihurtzen zituen horrela ikasgaiak. Eta musikaz lagunduta ikasten dena luzaroan gelditzen da burmuinean itsatsita.

### **Pedagogia herrikoia**

Zerbait maite bazuen Imanol Urbietak, hauxe zen: haurra gelatik atera eta herrira eramatea, herriko giroan sartzea, haurra txikitatik herritartzea, bazter berriak erakustea. Herriko festak eta ohiturak baliatuz, musika eta dantzen bidez, poz handiz elkartzen zituen herriko haurrak, gazteak, helduak eta aiona-amonak. Gabonak, Santa Ageda, inauteriak, sanjoanak, antzerkiak, kantu-emanaldiak, denak ziren aproposak haurra kalean protagonista bilakatzeko.

Batez ere kantagintzaren bidez bilatzen zuen haurraren herritartzea, haurra gai baita doinu batez lagun-

duta sentimenduak jendearen aurrean adierazteko. Horrekin lotuta, arreta berezia eskatzen zien irakasleei beren ahotsa zaintzeko, ahoskera fintzeko, fonazioa eta adierazkortasun-maila lantzeko... hortik ikasten baitu haurrak, mimetismoz eta imitazioz. Inhibizioak saihestuz, ausardiaz baina kontu handiarekin hitz eginez edo abestuz, ez zakar, beldurrik gabe, ez tonu altuegi edo baxuegietan, baizik eta haurraren eztarrira eta belarrira moldatuz.

Heziketa-lanerako, kalearen garrantzia txikitatik ikasitako ikasgaia zen berarentzat: inguruko mendiak eta errekek, itsasoa eta hondartza, kaleko txakurrak edo herriko plaza haurraren habitat naturaltzat aldarrikatzen zituen. Ederki zekien sentimendu herrikoi hori zela haurraren etorkizunerako lagungarri eta altxorrik onena. Herrigintza hori lehen lerroan zeukan bere ikuspegi pedagogikoan. Horixe nahi zuen berak, haurrak jendearen txaloak sentitzea, jendearen bihotz-berotasuna jasotzea... Hori estimatzen zuen, herritarren arteko komunikazio hori. Erlazio horretan, haurraren baitan sortzen den mundu afektibo-sinbolikoaren garrantziaz jabetuta eraiki zuen bere jardun pedagogikoa. Haurra protagonista sentitzea zen helburua.

### **Bihotzeko pedagogia**

“Ezin ditut haurrak beldurtuta edo deseroso ikusi”, esaten zuen. Zalantzarik gabe aitortzen zuen Urbietak haurra maitatzea beharrezkoa dela. Irakasleak edo hezitzaileak haurra maitatu egin behar duela uste zuen. Maitasun horri askatasuna eransten zion bere pedagogian. Eta arriskuak hartuz egiten zuen hori, haurraren bidaia eta ekintzak antolatuz. Kritika batzuk ere erakarri zizkion horrek. Halere, arrisku neurtuetan jokatzea atsegin zuen, bide berrien bila, irtenbideen atzetik... Jakina, estilo berritzaile hark disgustu bat baino gehiago ekarri zizkion bere bizitzan.

Indibidualistatzat jotzen zuten, eta tankerako beste kritika batzuk ere jasan zituen. Baina bere ekimen berritzaile guztiak ekipo berri eta ilusionatuekin eramaten zituen aurrera, bakoitzak bere tokia aurkitu zezan

ahaleginduz. Izaera berritzaile horrek batzuetan talka egiten du egunerokotasunean patxada geldoan murgilduta daudenekin. Baina Urbietak lortutako emaitzek erakusten dute pedagogo berritzaileak ere ezinbestekoak direla hezkuntzaren munduan.

Musikaren arloan egin zuen aukera izan daiteke bihotzeko pedagogoa zenaren adierazpen garbia: solfeo edo musikaren mundura esnatzea? Esnatze horren alde egin zuen bizitza osoan, musika egiteko eta musikarekin gozatzeko bidetik eramanez haurra. Musika era ofizial eta eskolatu batean tratatzea ez zuen gehiegi maite. Bazekien haurra musika sentitzeko dohainez hornituta dagoela, haren sentikortasuna eta emozionatzeko ahalmenak arlo horretan ongi lantzen direla. Azken batean, musika arte bat izanik, ekimen immaterial bat, sentitzeko eta bizitzeko zerbait da. Gero etorriko dira musika idatziak, solfeoak eta bestelakoak.

### **Gaitz berriak eskolan ere**

Ezagutu zituen Imanol Urbietak gaur egun hain arruntak bihurtu zaizkigun eskolako gaitzak. Gaur izen asko hartzen dituzten disfuntzio horiek *urduritasun* kontzeptuarekin adierazten zituen orduan Urbietak. Zehatzago ere izendatu zituen horietako batzuk: estresak, oldarkortasunak, gogobetetasunak... Gaztetxoek *pasotismoa* ere aztertu zuen. Edo haur bat gelan zokoratzeak ekartzen dituen ondorioak.

Ikus-entzunezko gailuen edo teknologia berrien indarrak eta abiadaz kontziente zen. Abiada ikaragarri batean sartua ikusten zuen haurra. Haurrak bakartzen ikusten zituen, bakantzen, gurasoak bere gauzetan eta haurra inguruan bai, baina haiekin ez... Antzinako denbora geldoagoak eta lasaiagoak amaitu ziren. Bizitza guztiko bizipenak haurtzaroan erre nahiko bagenitu bezala. Drogen beharra edota yoga eta kontzentrazio-saioak ere bide horretatik ulertzen zituen.

Urbietak proposatu zuen erlaxaziozko uneak sortzea ikastetxeetan. Lasaitzeko egoerak ugaritzea heziketa-orduetan. Bide horretan formulatu zituen hainbat proposamen egingarri.

Horrekin batera, bere pedagogiaren oinarrian haurraren errespetua zegoen, haurraren eritmoarekiko begirunea, jolasaren plazera, haurraren hurbilketa, haurra inguruarekin lotzeko saioa, eredu elitisten baztertzea, lehiakortasuna ez baina kompetentzia eta jakintza bultzatzeko eskema, haur bakoitzari inportantea dela sentiaraztea... Horrek guztiak sortzen duen pedagogiak gaitz moderno horien sarrera asko zailduko zuela pentsatzen zuen.

### **Irakasle-eredu berri bat**

Irakasleek ere zerbait esaten ahalegindu zen. Zerbait saihestu behar badu benetan haurren pedagogoa izan nahi duen batek, askotan ezagutu dugun *funtzionario* estilo hori litzateke. Haurraren zerbitzura jarri behar du hezitzaileak, haurrari egokitu behar zaio, haurraren munduan sartu behar du. Eta handik aterako ditu ondorio garrantzitsuenak. Hauxe da ondorio horietako bat: irakaslea ere haur bihurtu beharko da bere lanean, pailazoarena eginez, astoa imitatuz, kukurrukuak botaz, elefantearen pauso mantsoak eginez, kilkeraren kantua errepikatuz..., hau da, bere barruko haurra atereaz.

Hezitzaile-lanaren garrantziaz kontzientzia osoa hartu behar du irakasleak. Ausarta izan behar du aldi berean, bide berriak arakatzu eta errutinatik ihes eginez egunero-egunero. Sortzailea da, zentzu horretan. Haurraren emozioak, sentimenduak eta motibazioak piztu eta giroa eta interesa berotu behar ditu gelan. Jolastia eta arduratsua izan behar du. Gidaria, euskarria, animatzailea eta haurrak askatasunean heziko dituen. Arauak malgutasunez interpretatuz. Itxaroten ere jakin behar du hezitzaileak. Eta errealitatea ondo irakurtzen irakatsi behar dio haurrari.

Taldean jokatzea, herriko pertsona diferentez inguratuz lan egitea izan zen bere ametsa. Euskal Herriarekiko mantendu zuen konpromisoak bultzatu zuen lan egiteko eredu komunitario hori lehenestera. Taldean ekin baina ez taldekerian, konpromisoak hartuz beti haurraren zerbitzuan. Irakasle baten eginkizuna horrela ikusten zuen Urbietak.



# Euskal hezkuntzaren zoru etiko eta pedagogikoa

jardunaldia



## ***Hezkuntza hobetzeko gakoak EZTABAIDAGAI***

Apirilaren 21ean, larunbatean, Donostiako EHÜren Barriola eraikuntzan

### **Aurkezpenak, eztabaida eta hausnarketa EGUNA**

Hik Hasiren 10 gakoen gaineko eztabaida irekia planteatuko da.

\* Hizlarien artean izango dira, besteak beste, *Kontxi Aizarna, Xabier Sarasua, Joxe Mari Auzmendi, Amaia Etxabe, Xabier Tapia, Ane Ablanedo, Nora Salbotx, Lore Erriondo, Alexander Barandiaran, Izarne Garmendia, Mariam Bilbatua eta Eneko Itziar.*

Informazio osoa eta izena ematea

**[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)** helbidean

# EKARPENA

TAKOLO, PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEN PROIEKTU PEDAGOGIKOA

## Euskal pailazogintza sozio-hezitzailea: gizarte-eraldaketarako tresna

**G**izartean eta hezkuntzan balioen lanketa, euskararen erabilera eta harekiko atxikimendua nola sustatu izan da nire kezka nagusia beti, eta nire burua bi esparru horietan prestatzen ahalegintzen naiz. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako Gradua eta arlo horretako hainbat ikasketa egin ondoren, Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Unibertsitate Masterra egiteari ekin nion Euskal Herriko Unibertsitatean, bi esparru horien inguruko nire kezka ikertzeko asmoz. Horrela, master amaierako lanean Takolo, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek sorturiko proiektu pedagogikoa ikertzea erabaki nuen, orain arte ez baita izaera pedagogikoa duen euskal pailazogintzarik aztertu. Eta euskal pailazogintza horren sorrerak hezkuntza-munduan izan dezakeen eragina aztertzea eta ikergai bihurtzea izan da nire lanaren helburuetako bat. Halaber, honako galdera honi erantzun nahi zion ikerketak: nola sortzen da eredu hezitzaile bat, izaera pedagogikoa duen euskal pailazogintzaren bidez?

Zirku tradizionalaren eredu aldatu egin da historian zehar, zirku sozialari bide emanez, eta berdin gertatu da antzerkigintzan ere. Gauzak horrela, gaur egun ezagutzen dugun zirku ez da jada abilezia artistikoen bilgunea



**AINHOA GANA  
DAÑOBEITIA**

**EHUko doktoregiaia**

soilik; komunitatean esku hartzeko tresna ere bilakatu da. Ikusleek hausnar dezaten, hainbat gai lantzen dira, baita antzerkigintzan ere.

Diziplina artistiko berritzaile horien haritik, pailazogintza mota berriak ere sortu dira, gizarte demokratiko batekiko aldarria egiten dutenak. Diziplina horietan adituak diren Ros eta Úcar hezitzaileek pailazo moten sailkapena egin zuten, hain zuzen, eta, horien artean, pailazo soziala ageri da. Pailazo mota horrek zerbitzu komunitarioak, humanitarioak eta erre-

beldeak eskaintzen ditu, eta gizarte-eta hezkuntza-eremuetako pailazoa, pailazo sozio-hezitzailea, gehitu behar zaio kategoria horri; antzekotasun handiak ditu pailazo horrek ikergai izan ditudan Takolo, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek sorturiko proiektu pedagogikoarekin: pailazogintza komunitatearekin lotzen dute, demokrazia kultural komunitarioa lortzeko beharrezanagatik; komunitatean, komunitatearekin eta komunitatearentzat buruturiko prozesu baten bidez egiten da, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, eta herritartasunaren hobekuntza eta aldaketa soziala bermatzeko xedearekin; eta praktika eta proiektu sozialak burutzen dituzten pailazo horiek giza balioen defentsa egiten dute, besteak beste.

Horretan guztian sakontzeko bide edota modurik onena protagonistei beraiei hitza ematea izan da, eta, horregatik, ikerketarako metodo kualitatiboaz baliatuz, elkarrizketa sakon bana egin zitzaiezen lehenik Takolo, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoiei, eta, gerora, talde-elkarrizketa egin zen, gaur egun taldean diharduten Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin, metodologikoki aberatsagoa izan zedin. Bestalde, haien pailazogintzaren eta proiektuen inguruko bi hitzaldi ere hartu ziren





kontuan, eta haiek sorturiko zenbait euskarri eta dokumentuen azterketa egin zen. Erabilitako ikerketa-tresna horien bitartez, master amaierako lan honetarako baliagarriak diren datuak jaso ziren eta analizatu, eta emaitzak eta ondorioak atera ziren.

Egindako ikerketan, beraz, hezkuntza-eragiletzat hartu zen pailazo taldea, eta haien izaera pedagogiko hori azaldu zen: zein den pailazogintza horren inspirazioa, zer mugari izan dituen berorren garapenak, zer ideia transmititu nahi dituzten, zein diren sortu zenetik gaur arte izan diren aldaketen zergatiak, zer motibazio eta helburu izan dituzten, zertarako eta zergatik erabiltzen duten eredu hezitzaile hori, eta nola burutzen duten.

Gauzak horrela, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldeak **berrezko pailazogintza-eredua sortu** duela berretsi da, euskal pailazogintza-ren ibilbide osoan zehar ez baitago horrelako ezaugarriak dituen pailazo talderik. Hala ere, harremanetan daude etengabe hainbat euskal sortzaileekin, euskal kulturarekin lotuta daudenekin edota hezkuntza-munduan dihardutenekin, eta harreman horiek eragina izan dute hasieratik pailazogintza modalitate honen sorreran. Gauzak horrela, ezaugarri hauek nabarmentzen dira, beren esku-hartze eraldatzailean:

1. Jaio, **herrigintza**ren barruan **jaio** ziren, euskararen normalizaziorako dinamikaren barruan, eta, harrezkero, euskalgintza eta herrigintza beren jardueraren erdigunean jartzen jarraitzen dute.
2. Halaber, argi ikusi dute hasieratik, helburu dituzten **euskararen normalizazioa eta alaitasun hezigarria sustatzeaz gain, gai sozialak eta giza balioak landu** behar dituztela. Horretarako, gertutik bizi dituzten gaiak lantzen dituzte: herrigintzatik eta komunikabideetatik iristen zaizkienak; eta, askotariko mezuak zabalduz, pailazogintza bidez gizareratu nahi dituztenak, besteak beste: ekologia, natura, kultura, etxebetxeak, aniztasuna, familia-ereduak, osasuna, heziketa, genero-ikuspegia, justizia, bizikidetzeta, gaixotasunak...
3. Hori dela eta, badakite egunerokotasunari adi egon behar dutela, gizartea etengabe aldatuz doan heinean, haien pailazogintza ere gizarte horren arabera moldatuz baitoa, modu kontzientean batean. Horregatik, **ikuspegi eraldatzailea behar dute**, ikuspegi pedagogikoak hori baitakar berarekin, etengabeko presuntakuntza- eta eraldaketa-prozesua egitea, alegia.
4. Esan genezake **pailazo ikertzaileak** direla; izan ere, jendartearentzat esanguratsuak diren gaiak lantzeko, gertutik bizi dituzten gizarteko gertakizunak hartzen dituzte aintzat, horien inguruko hausnarketa eginez. Haien eredu pedagogikoaren prozesu horrek, bada, **bi dinamika ditu: gogoeta eta ekintza**; eta elkarri eragiten diote biek. Hau da, egiten dituzten hausnarketa horiek beren norabidea markatzen dute, egindako gogoetetatik bideratzen baitute beraien praktika.
5. Beraz, hezitzaile rola betetzen dute; hausnarketa egiten dute; gai batzuk bereizi egiten dituzte; eztabaida-prozesu bat egiten dute gauzak erabakitzeke orduan, eta gai batzuekiko sentsibilitatea lantzen dute. Horrenbestez, barenan hainbat balio biltzen dituen **ideologia zehatz bat** dago, proiektu pedagogiko horren arloan: eraiki nahi duten mundu eta Euskal Herri jakin baten aldeko apustua egiten duen ideologia, norbanako bakoitzaren beharrezanetatik abiatuta, askatasunean oinarrituriko mundu justuago bat posible egiten duena, eta denon eskubideak asebetetzen dituen, besteak beste.
6. Gauzak horrela, **hizkuntza eta**

“Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldeak berezko pailazogintza-eredua sortu duela berretsi da, euskal pailazogintzaren ibilbide osoan zehar ez baitago horrelako ezaugarriak dituen pailazo talderik. Hala ere, harremanetan daude etengabe hainbat euskal sortzailerekin, euskal kulturgileekin edota hezkuntza-mundukoekin, eta harreman horiek eragina izan dute hasieratik pailazogintzaren modalitate honen sorreran”

**kultura eraldatzaileak direla uste dute**, eta haien pailazogintza bi horietan, herrigintzan eta euskalgintzan, kokatzen denez, ez da kasualitatea eredu berri hori ikuspuntu pedagogiko eta eraldatzaile batetik eginda egotea, ez eta taldekideak herrigintzan inplikaturik egotea ere.

7. Horren harira, **euskaldun izateak, txikitasunak, zerikusi handia izan du pailazogintza honen sorreran**, txikia edo zapaldua izateak gauza berriak sortzeko premia eragiten baitu, beharriaz modu desberdinean aurre egitea. Euskaldunon txiki-

tasun horrekin, enpatia bereganatu dute, eta gure desabantailatik abiatuta, hobeto ulertzen dituzte besteen desabantailak. Enpatia horrek gizarteko eta hezkuntzako eragile ugariarekin elkarlana egitea dakar, eta hori ere herrigintzaren gauzatze bat da, euskaldunok berezkoa dugun ezaugarria, auzolanarena.

8. Hortaz, guztiontzat nahi duten mundu horrekiko aldarrikapena egiteko eta Euskal Herriak, euskarak eta euskal kulturak munduan toki bat izan dezaten aldarrikatzen duten heinean, berebiziko garrantzia izan du pailazo taldearentzat Euskal Herriko elkarteekin lanean aritu izanak, bai eta euskal kultura-rekin lotuta daudenekin edota hezkuntza-munduan dihardutenekin lanean jardun izanak ere. Horren ondorioz, haientzat **funtsezkoa da beste eragile batzuekin proiektuetan parte hartzea** (Irrien Lagunak Kluba, Bizipoza, Oinherri, eta Lur eta Amets, besteak beste), izan ere, elkarlanean gauzatutako proiektuok zera aldarrikatzen dute: giza eskubideen defentsa egitea, haurren heziketaren ardura gizarte osoarena izatea, heziketa parte-hartzailea eta herritarra izatea, eta Euskal Herriak eta euskarak munduan beren lekua izatea. Horrenbestez, erreferente sinboliko eta sozial diren pailazook zeregin garrantzitsua betetzen dute, proiektuon mezu eta ideia horiek guztiak pailazogintzaren bidez zabalduz.
9. Ezin aipatu gabe utzi, taldearentzat Bizipoza gizarte-egitasmoan parte hartzeak izan duen garrantzia. Ahulen eta baztertuen ikuspegitik denontzat izango den mundu eta Euskal Herri baten aldeko aldarrikapena egiten du Bizipozak. Eta elkarte horien mezuak eta balioak pailazogintzaren bidez eta euskaraz gizarteratzen ditu Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldeak. Beraz, oso garrantzitsua da, ikuspegi inklusibotik eta pertsonen eskubideak asebetetzeko asmoz,

balio eraldatzaileak lantzea, elkarte horiekin eginiko elkarlanaren bidez. Gizartean dagoen aniztasunaren isla diren elkarte horiekin guztiekin eta **Bizipozarekin eginiko elkarlanari esker, asko aldatu da pailazo taldearen norabidea**.

10. Arestian esandakoa aintzat hartuta, esan daiteke pailazo taldeak **euskal gizartea ahalduntzen duela pailazogintzaren bidez, sorturiko proiektu pedagogiko honekin herritartasuna hobetu eta aldaketa soziala bermatu nahian**; oso aproposa izan daiteke inklusioan eta demokrazian oinarrituriko gizarte bat lortzeko bidean. Horrenbestez, gizarte hori lortzeko, ezinbestekoa da horretan kontzientziatzeko eta kritikotasuna bermatzeko aukera eskaintzea jendarteari, hezkuntzako esparru guztietan; pailazo talde honek eskaintza zabala egiten du, txikitatik hausnartari bide emateko; eta, eragile sozialak diren heinean, **haien pailazo-ibilbideari jarraitzen diotenei ere ikuspegi pedagogiko hori garatzen joateko aukera eskaintzen die, betiere zapalduerik gabeko gizarte demokratiko baten aldeko apustua eginda**.

Hortaz, praktika pedagogiko bilakatu da haien pailazogintza; herrigintzatik jaio da, herrigintzari elikatu da, eta herrigintzari nahi duen mundu eta Euskal Herri baten aldeko aldarrikapena egiteko aukera eskaintzen dio. Horrek esan nahi du pailazogintzaren bitartez mundua alda daitekeela sinesten dutela; beraz, jendearengan duten eraginaz baliatuz, heziketa-lana egiten dute, pailazogintzaren bidez. Horrenbestez, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei sortu duten euskal pailazogintzaren bidezko eredu pedagogiko horrek haurrak hezteko bide berri bat sortu du, giza balioak euskaratik landuz eta euskal kultura aintzat harturik, gizarteko eta hezkuntzako eragileekin elkarlanean; hezkuntzako esparru guztietan landu daitekeen heziketa da, hezkuntza-ikuspegi sakona eta emankorra eskaintzen duena.

# zientziaazoka

elhuyar da

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

APIRILAREN

# 21

ean  
larunbata

2017-2018

Bilboko Plaza Barrian,  
egun osoz,  
12:00etatik aurrera!

[zientzia-azoka.elhuyar.eus](http://zientzia-azoka.elhuyar.eus)

bizi  
ikerketa!

SARTU  
ZURE  
AGENDAN!

ANTOLATZAILEA

elhuyar  
Zientzia

BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK



# GALDEIDAZU

## ZER DA JOLAS LIBREA, ETA ZERTARAKO BALIO DU?

**J**olasa, jokia, olgeta, *juego*, *play*, *game*... Sinonimoak al dira? Gauza berdinari egiten al diote erreferentzia? Fenomeno konplexua da jolasa eta terminologia aldetik nahiko nahasmen dago, bai Euskal Herrian bai atzerrian. Beraz, ez da erraza jolasaren definizio bat ekartzea, asko daudelako eta gainera kontrajariak direlako. Baina Bugart-ena nabarmenduko nuke: “Estresik gabeko testuinguru erlaxatu batean animalia edo gizakiek beren borondatez hasten eta gauzatzen duten jokabide errepikatua. Osatu gabea da eta ez funtzionala. Berekin dakartza plazera, dibertsioa eta emozioa”. Lerro gutxitan karga handia dauka:

- “Estresik gabeko testuinguru erlaxatu batean”. Zer esan nahi du horrek? Jolasa gauzatzen dela behar biologikoak edo erritmo biologikoak aseta daudenean, eta umea edo kumea seguru sentitzen den momentuan. Seguru sentitzeari uzten badio, arrisku bat dagoelako, edo gosea daukalako... jolasa da desagertzen lehena.

- “Animalia edo gizakiek beren borondatez hasten eta gauzatzen duten jokabide errepikatua”. Azpimarratzekoa da “beren borondatez” dionean: jolasa berez sortzen da, ez dauka norbaitek esan beharrik ‘goazen jolastera!’. Eta horrek jolas librea darkarkigu gogora. “Jokabide errepikatua” dio, bestalde: behin eta berriro gertatzen da, ez da asetzen.

- “Osatu gabea da eta ez



**ITZIAR ARREGI**

**HUHEZI-ko irakaslea**



funtzionala”. Ez dauka helburu jakin bat, eta ez da helburu hori lortzen denean bukatzen den zerbait. Hurrengo egunean gai berarekin jolastu daiteke.

- “Berekin dakartza plazera, dibertsioa eta emozioa”. Sentsazio horiek berreskuratzea da xedea, zeren eta jolasa ezaugarritzen duten faktoreak dira. Gainera, helduaroan beharko dituen jokabideak garatzeko edo trebatzeko aukera ematen dio jolasak kumeari edo umeari. Biologoek esaten dute egokitu zaion nitxo ekologikora egokitzeko baliagarria zaiola. Beraz, bizi den lekuaren arabera jokabideak jolastuko ditu. Zaldiek beharko dute ihesa garatu, orduan jolasa korrika egitea izango da. Katuek beharko dute ehiza garatu, orduan jolasa izango da atzamarka egitea. Umeek ere helduoi ikusten dizkiguten hainbat alderdi jolasten dituzte, eta imitatzen gaituzte.

Euskal Herrian nahiko ohikoa da jolasa hiru motatan bereiztea: sentsore-motorea, sinbolikoa eta arautua. Sailkapen hori ez da faltsua, baina jolasa hori baino konplexuagoa da. Lehen motari erreferentzia eginda, sentsore-motoreak munduaren ezaugarriak identifikatzen joateko aukera ematen dio umeari. Mugimenduarekin eta objektuekin oso lotuta dago: objektuak ezaugarritzeko aukera ematen du eta esperimazioarekin oso lotua dago.

Irudimena eta fantasiarekin sartuko ginateke jolas sinbolikoa deitu dugun horretara: jolas sinbolikoak esanahia-

rekin dauka zerikusia. Adibidez, erratz batek kirten luzea dauka, gogorra, barrena aldiz latza... eta hori deskubritzen du umeak esperimentazioaren bidez. Sinbolikora sartzen denean, erratz horri beste esanahi bat egotzen dio, eta bihur daiteke zaldi.

Atzerriko ikerketetan, lau jolas sinboliko mota bereizten hasita daude: *meet believe*, *pretend play*, *dramatic*, eta *social dramatic play*. Make believe eta pretend play izango lirateke Euskal Herrian sinbolikoa deitzen dugun hori: kanpoko objektu bati egotzea esanahia, umearen gorputzarekin zerikusirik ez daukan zerbaitetan eraikitzea esanahia. Honek aukera ematen dio umeari bere gorputzetik kanpo esperimentatzeko eta egoerak bizitzeko. Zalditik erortzen dena, edo beldurtzen dena *playmobile* pertsonaia bat izango da, kanpoan dago egotzen. Dramatic play delakoan, aldiz, bere gorputzean bizi du. Beraz jolasaren intentsitatea edo bizitzeko modua aldatu egiten da, eta umeari ematen dio aukera bizitzeko eta berak sentitzeko, bere gorputzean. Social dramatic deituan, bere gorputzean bizi duen hori ez du berak bakarrik bizi, beste batekin baizik. Beraz, berarekin partekatu beharra dauka zein den, bestea zein den, hura zer den, non dauden, zein den gaia, zer egingo duen bakoitzak... Horrek eskatzen du beste aktibitate mental bat jolaste hutsak eskatzen ez duena.

Horrekin batera, aztertu behar da jolasa nola garatzen den adinean aurrera goazen heinean. Lehenengo esanahia egotzen hasten da, modu zehatz batean: egotzen zaio esanahia objektu bati, adibidez erratz bati. Objektu horrek objektu errearen itxura izateak errazten dio umeari esanahia egotzea. Umea hazten doan heinean, esanahia egotzeko gaitasuna garatuz doa eta objektuak ez dauka zertan errearen itxura izan beharrik. Eta iristen da une bat, 5-6 urterekin, ez daukana objektuaren beharrik ere, ideien mundua nahikoa du jolasteko.

Bestalde, lehenengo kanpo objektu bati hasten da esanahia egotzen, eta gero jolas sinboliko dramatikora joko du, eta bere gorputzean bizitzen hasiko da, sekuentzia motzekin, urte eta erdi ingururekin. Sekuentzia motzena

izan daiteke, adibidez, goilarea hartu eta panpinari jaten ematea. Poliki-poliki sekuentzia hori konplexuago bilakatzen joango litzateke: lehen-go panpina-goilarea-pardela, gero panpina-goilarea-pardela-lotarako manta... Eta horrela sartzen da gero sozio-dramatikora, beste batekin negoziatzera: nik goilarea, zuk manta, eta biok adostea gaia, adostea rola, espazioa prestatzea... Hau adinean aurrerago agertzen da. Dena dela, ez dira faseak eta etapak elkarren atzetik gertatzen, gainjarri egiten dira; beharrene arabera joango da bata edo bestea aukeratzen.

Esaten da gero umea jolas arautura pasatuko dela, baina adibidez sozio-dramatikoa funtzionatzeko arauak egon badaude; agian ez dira hain esplizituak, ez hain ezagunak, baina egon badaude, eta umeek argi dituzte: lehenen iristen denak edo jolasa hasten duenak proposatzen du gaia; denek eskatu behar dute baimena jolasteko; denek izan behar dute rolen bat, ezin duzu sozio-dramatikoa istorioan sartu gabe gelditu; eta denek jolastu behar dute, ekintza egon behar du; eta besteen proposamenak onartuz, jolasaren sekuentzia mantendu egin behar da, beraz proposamenek izan behar dute onargarriak edo jarraitzeko modukoak.

Arau inplizituak ere badaude: fantasiaren eta errealtatearen arteko muga argi izan behar dute uneoro. Eta ez dira konfunditzen, gu errazago konfunditzen gara, argi daukate noiz ari diren jolasean eta noiz ez. Horrek guztiak jada oinarria prestatzen du araututako jolasera pasatu ahal izateko, guk jokoa deitzen dugunera.

### Zer egin dezakegu helduok?

Puntu honetan, espazioaz, denboraz, materialez eta esku-hartzeaz hitz egin nahi nuke. Espazioari helduta, kanpokoak eta barrukoak bereizi behar ditugu. Kanpo-espazioari erreferentzia egiteko garrantzitsua da *risky play* kontzeptua azaltzea, arrisku jolasa alegia. Herrialde nordikoetan nahiko onartua eta ikertua da, eta eskola eremura ere ekarri da: umeak arriskua jolastu behar du. Jolas honen barruan mota desberdinak bereizten dituzte: adibidez, altuera jolasak, al-

**Aztertu behar da jolasa nola garatzen den adinean aurrera goazen heinean. Lehenengo, esanahia egotzen hasten da objektu bati, adibidez erratz bati. Umea hazten doan heinean, esanahia egotzeko gaitasuna garatuz doa eta objektuak ez dauka zertan errearen itxura izan beharrik. Eta iristen da une bat, 5-6 urterekin, ez daukana objektuaren beharrik ere, ideien mundua nahikoa du jolasteko.**

tuera batera igo eta erortzeko arriskua esperimentatzeko; edo espazioan galtze jolasa, basora eramatea mugarik gabe; edo abiadura jolasa... Kanpo espazioak, naturak, aukera interesgarriak ematen ditu horretarako, mundua ezagutzeko, gure gorputza probatzeko, arriskuak kudeatzeko...

Helduok, ordea, arrisku jolasa eragozteko joera daukagu, min hartu baitezakete gure altxor txikiek. Baina babestu behar horrekin, badago arriskua umeak behar duen hori ere eragozteko. Eta justifikatuta daude gure beldurrak: umeak behar duen bezala mundua deskubritu, guk instintiboki, animaliek bezala, behar dugu deszendentzia babestu; orduan babes behar hori aktibatzen da. Kontua da ikustea zenbateraino eragozten duen umearen beharra, gehiegizkoa ote den. Konfiantza izan behar dugu arriskua kudeatzeko daukaten gaitasunetan.

Haurrak esperimentatu egin behar du testuinguru berrietan, seguru sentitu ahal izateko eta ondoren esanahi bat egoten hasi eta, beraz, sinbolikora edo dramatikora pasa. Ikerketek diote, ordea, zenbaitetan dramatikoa gehiago agertzen dela kanpo espazioetan barrukoetan baino, eta berez kontraesana dirudi, kanpoan gehiago

Noiz eta zertarako behar gaituzte umEEK jolasean? Interesantea da umeari jolasten uztea eta sinestea gai dela gure presentzia eskatzeko behar gaituenean, eta errespetatzea bere eskaria edo beharra. Bestela oso erraz inbaditu dezakegu bere espazioa, bere jolasa baldintzatu eta geurera ekarri, eta bere jolasaren ibilbidea moztu.

esperimentatu behar du seguru sentitzeko, etxea aldiz espazio segurua da. Horren aurrean, ikertzaileek aztertu egin zuten ea zer gertatzen zen barneko espazioekin, eta aurkeztu zuten hipotesia zen kasu askotan barruko espazioak ez duela baimentzen jolas sinbolikoa, esanahia egozteko aukera hori. Eskoletara jota, etxe txokoak jarri ditzakegu horren adibidetzat: karratu bat izan ohi dira, hormetan armairuekin, erdian mahai bat lau aulkirekin... Hau da, gaia oso definituta dator. Orduan, umeak etxea ez den gai bat jolasteko beharra baldin badauka, ezin du espazio neutro batetik abiatu, baizik eta beste esanahi bat duen espazioari esanahi hori kendu behar dio lehenik, ondoren beste bat egozten hasteko. Beraz, eskaintzen dieguna oso baldintzatu dago, eta esanahia egozteko aukera mugatu egiten du. Ikertzaileek horrekin lotzen zuten dramatikorearen edo jolas sinbolikoaren kopuru murrizta.

Zentzu horretan, interesgarria da hurrei espazioa konfiguratzeko gaitasuna aitortzea eta horretarako aukera ematea. Gure etxeetan ze espazio hartzen du jolasak? Logela, egongela...? Eta aukerak emanez gero ze konfigurazio edo aldaketa egiten dituzte? Eta gure presentzia berdina al da barruko espazioetan edo kanpoan? Presenteagoa gaude logelan, ala mendian?

Berdin egiten al ditugu proposamenak batean ala bestean?

Denborari dagokionez, esan dugu jolasak sekuentzia bat baduela eta konplexuago bilakatuz doala. Eta sekuentzia konplexuetara iristeko, sozializazio kooperatibora edo sozio-dramatikora heltzeko, umeak denbora behar du: erabaki behar du gaur bere beharra zein den, gaia zein den, kideak ere aldi berean erabaki behar du bere gaurko beharra zein den, elkarri proposatu, akordiora iritsi, testuingurua prestatu... Zenbat eta jolas konplexuagoa, orduan eta denbora gehiago behar du. Baina denbora hori ez bada eskaintzen, edo moztu egiten bada etengabe, haurrak badaki ezin duela iritsi konplexutasun maila handietara eta jolas simple batean gelditzen da. Nola bukatzen da jolasa egunerokoa? Zeinek erabakitzen du jolasa noiz eta nola bukatu? Aukera ematen badiogu umeari, ikusiko dugu jolas batekin asetzen denean aldatu egiten duela gaiz. Interesantea da ikustea ez bakarrik nola hasten den jolasa, baita nola bukatzen den, zeinek ixten duen atea; zantzuak emango dizkigu esku-hartzeari dagokionez.

Materialei dagokienez, haurra zenbat eta txikiagoa jostailuak zehatzagoa izan behar du esanahiari dagokionez. Ikerketa batean proposatzen da umea zenbat eta helduagoa, materialak izan behar zuela gutxiago definitutakoa, umeak egozten diolako esanahia. Merkaturako kontrako norabidean doa, ordea. Ume txikiei objektu indefinitu, amorfo eta esanahi zehatzgabeak ematen dizkie, eta zenbat eta zaharago, orduan eta zehatzago.

Bestalde, interesgarria da ikustea helduari zer gustatzen zaion: adibidez Lego piezak asko gustatzen bazaizkio, jostailu horrekin batera emango dizkio umeari bere presentzia eta begirada, eta hor sortzen da harremana.

Azkenik, helduaren esku-hartzearen inguruan, hiru ideia gako:

**1. Jolasa gidatu vs. Jolas librea:** Oso bogan dagoen gaia, hemen nahiz munduan. Jarrera bakoitzak umea ikusteko modu batekin dauka zerikusia. Eta bi jarrerak dituzte beren zailtasunak. Jolasa gidatzearen atzetik honako ikuspegia dago: 'ez badiot laguntzen,agian ez da gai iritsi behar


lukeen lekura iristeko'. Honen arriskua da nire proposamenera datorrela umea, eta ez bere beharrera, nik gidatzen baitut jolasa. Alderantziz, libre uztearen atzetik dagoen ikuspegia honakoa da: 'Umea gai da bere nitxo ekologikora egokitzeko eta aske utzi dezakegu'. Nik honetan sinesten dut, baina baditu bere arriskuak ere. Zer gertatzen da umearen jolasa ez bazait gustatzen? Horren aurrean moztu egin ohi dugu jolas hori. Arrisku-jolasak, adibidez, umea zuhaitzera igotzen denean, edo borroka jolasetan ari direnean... Ikerketek diote gehien moztzen diren jolasak zaratatsuak, kaotikoak, zoroak, mugimendu askokoak, biolentziazkoak, borroka jolasak... direla. Horiek ere jolasak dira, ordea; plazera dagoen bitartean, jolasa da. Helduok beldur izaten gara hurrek marra gorria zeharkatu ote duten, baina ongi bereizi ohi dute jolasa eta errealitatea.

**2. Noiz eta zertarako behar gaituzte umEEK jolasean?:** Ikerketen arabera, 5 kasutan behar gaituzte: laguntza behar dutelako; zerbaiten funtzionamendua ulertzen ez dutelako; justizia behar dutelako; gure begirada behar dutelako; edota jolas kide gisa nahi gaituztelako. Interesantea da uztea eta sinestea umea gai dela gure presentzia eskatzeko behar gaituenean, eta errespetatzea bere beharra edo eskaria. Bestela oso erraz inbaditu dezakegu bere espazioa, baldintzatu eta geurera ekarri, eta bere jolasaren ibilbidea moztu.

**3. Gure inpaktua jolasean:** Iaz eskolan egin genuen ikerketa baten arabera, lau inpaktu mota zeuden eskolan irakaslearen esku-hartzearen ondorioz: jolasa eten egiten zen; jolasa aldatu egiten zen; jarrailu egiten zuen; edo aberastu egiten zen. Bada, inpaktu ohikoena zen jolasa etetea; eta frekuentzia gutxien erakutsi zuen inpaktua zen jolasa aberastea. Behatu behar dugu gure esku-hartzeak zer eragin izan duen.

Francesco Tonucci psikopedagogoarekin hitzak ekarrita "jolasten uztea" da gure ardura. Umearen jolasa hobetzeko zerbait egiteko nahia izan ohi dugu, baina igoal hori baino sinpleagoa da kontua: ez daukagu ezer egin beharrik. Umearen gaitasunetan sinestu eta konfiantza izan behar da.

# ARGITALPENAK



## ELKARTOKI, PATIOA DENONA DA

Askoren artean

### TIPI

Tipik eraldaketarako diseinuak egiten ditu, eta honako hau eskolako patioetan zentratzen da. EAEko bederatzi eskolatan garatu den programa esperimentala aurkezten da liburu honetan. Dinamika eta harreman komunitarioak hobetzen laguntzen duten prototipo eta interbentzioen bitartez, eskoletako patio espazioak eraldatzea proposatzen du.



## Selfie eta whatsapp artean

Askoren artean

### GEDISA

Hala Europan nola Latinoamerikan haurrei eta nerabeei Internetekin bizi-tzeak dakartzkien aukerei eta arriskuei buruzko gaur egungo ebidentzia fidagarrietan oinarritutako egoera diagnostiko bat da. EHUko irakasle eta EU Kids Online taldeko kide Estefanía Jiménezek, Maialen Garmendiak eta Miguel Ángel Casadok koordinatu dute.



## WILHELM VON HUMBOLDT ETA EUSKAL HERRIA

Iñaki Zabaleta Gorrotzategi

### EHUren ARGITALPEN ZERBITZUAK

Wilhelm von Humboldt (1767-1835) prusiar humanista, politikari eta hizkuntzalari ezagunak Euskal Herria bisitatu zuenetik, 1799an eta 1801ean, behin eta berriz heldu zion euskal gaia-ri. Lan horiek biltzen dira modu ordenatuan eta bere pentsamendu antropologikoarekiko erlazioan aurkeztuz.




## 6012

Karlos Linazasoro

### EREIN

1978ko martxoaren 28a. Gau erdian, T.-tik pasatzen den 6012 zenbakidun merkantzia trenak, errailetatik irten, eta lehergailu bat utzi du trenbidearen erdian: 55 tona azido zianhidriko daratzen zisterna bat. Ia probintzia osoa desagerrarazteko indarra duen bonba bat. Larrialdia, beldurra, psikosia, kaosa. Suspentseko *nouvelle* txundigarria da.



## JAKIN 224

Askoren artean

### JAKIN

Ale honek Argitxu Noblia Richard mediku eta Seaskako sortzaileari egindako elkarrizketa du osagai nagusia. Nobliak bertatik bertara bizi izan ditu garai eta momentu gako asko: Seaskaren sortzaile izateaz gain, Enbatako kide izan zen, hautagai... Horrez gain, Xan Aire Seaskako Hizkuntza Proiektuaren koordinatzailearen artikulua dago, Seaskaren erronken inguruko gogoeta eginez.



## NIK PAPAITA, ZUK PAPAITA

Xabier Olaso/Agurtzane Villate

### PAMIELA

400 igarkizun, 10 olerkizun eta beste 10 igarkilima biltzen dira liburu dibertigarri honetan. Egileak hitzekin jolasteko eta bazterrak nahasteko ariketa ederra proposatzen du. Bera izango da igarkizunen *igorlea* eta irakurlea *igarlea*. Buru-belarri aritu da igarlea nola engainatuko, erantzun okerra nola agertuko, erantzun zuzena nola ezkutatuko...

# PROPOSAMENA

## Abeletxea

### Animaliak anfitrioi eta gu gonbidatu garen etxea

Kutxa Ekogunean Abeletxea izeneko gune berri bat prestatu dute. Ikastetxeetako haurrei eta hezitzaileei animaliangana gerturatzeko eta haien bizimodua ezagutzeko aukera ematen diete. Errespetutik abiatuta. Enpatiaz elkar ezagutzeko gune goxo bat da.



Haurrak Leggin, Goxoki, Marilyn, Pontxo eta Graffiti ezagutzen. Iturria: Kutxa Ekogunea.

**H**emen animalia bizi da, bera da anfitrioi eta zu gonbidatua zara”. Horixe esaten diete haurrei eta hezitzaileei Abeletxeko atea zeharkatu baino lehen. Horiek dira lehen hitzak. Argi gertzen da, beraz, haur zein hezitzaileak direla animalien etxera doazanak, eta beste edonoren etxera doazenean bezala jokatu beharko dutela, errespetuz. “Hori esan arren, atea zeharkatu ondoren, animaliangana zuzenean joan, eta, askotan oihuka, haiek alde guztietatik ukitzen hasten dira. Eta noski, animaliek alde egiten diete” dio Eider Otaegi Abeletxeko tek-

nikariak. “Zeozar gaizki egin dugula esaten diegu eta pentsatzen hasten gara: zuei norbait ezezaguna hurbiltzen bazaizue, zer beharko zenukete lasai egoteko? Goxo hitz egitea, nola gauden galdetzea, zer nahi dugun galdetzea...”. Beste hitz batzuetan esanda, enpatia, elkar ulertzea... Eta horrek animalientzat zein gizakientzat balio du. “Hori ikusarazten saiatzen gara. Gizakiok animaliekiko dugun ezagutza eta errespetua areagotzea da gure helburu nagusia. Maitatzeko nahitaezkoa omen delako ezagutza, eta maitatzen duguna soilik zaintzen dugulako. Errespetua, maitasuna eta

zaintza. Hori da gure helburua: ezagutzea eta kontziente izatea zer dagoen horren atzean” laburbildu digu Otaegik. Animaliek protagonismoa duten espazioa da Abeletxea, Kutxa Ekogunean dagoen gune berriena.

Ikasturte honen hasieran ireki zituen atea eta dagoeneko ikasle eta hezitzaile askoren bisita jaso dute bertako animaliek. Hainbat tailer eskaintzen dituzte eta horietako bakoitzean animaliekin lotutako gaiak eta balioak lantzen dituzte: biodibertsitatea, kontsumoa, bizikidetzeta, ura, energia...

Hori guztia lantzeko euskal arrazako animaliak bildu dituzte Abele-



txean, “Ekogunearen filosofiarekin beste modu batera ezin zelako izan” dio Otaegik. “Arraza autoktonoak gure lurralde eta kulturaren ondare dira, eta gainera, ingurugiroa gehien errespetatzen duten abeltzaintza ereduak lotuak daude, gaur egun ere. Zoritxarrez, eta gizakion jardueraren ondorioz, galzorian daude gehienak. Hainbat elkarte ari dira arraza horiek berreskuratzeko lanean, eta gu haiekin harremanetan jarri eta animalia horiek ekarri ditugu hona”. Guztira bertako zazpi espezie izango dituzte, nahiz eta oraindik denak ez dauden: euskal oiloa, ahuntz azpigorria, ardi latxa, Enkanterrietako astoa, euskal txerria, behi terraña eta euskal antzara.

### Mitoak apurtzen

Animalia horiek gertutik ikusten dituzte. Eta ustekabe askorekin egiten dute topo Otaegik kontatzen duenez: “*Mila bizidun ditu Ekoguneak tailer*rean, adibidez, ahuntza, ardi eta txerrien eremuan sartzen gara. Ahuntzak eta ardiak dauden zelaia berde-berde dagoela konturatzen dira berehala, eta txerriena lokaztuta. Zergatik? Bada, txerriak janaria lur azpian bilatzen ibiltzen direlako (fruituak, sustraiak, zizareak...) eta horregatik gelditzen da dena lokatzez”.

Animalia bakoitzak ezaugarri desberdinak ditu, eta hori zergatik den azaltzen dute, naturari lotura eginez. Ezer ez baita kasualitatez. “Adibidez, ahuntzak zergatik dauka bi hanketan jartzeko gaitasuna? Zuhaitzetako hostoak jaten dituelako eta iritsiko bada bi hanketan jarri behar duelako. Horrez gain, orain dela milaka urte mendian toki malkartsuetan ibiltzen zen eta horregatik du eskalatzeko joera”.

Mitoak ere apurtzen dituzte: etorri aurretik galdetuz gero, txerria zikina, ardia tuntuna eta ahuntza gaiztoa dela esaten dute. Eta horri buelta ematen diote Abeletxean. Ardia ez da tuntuna. Ahuntzari naturak adarrak eman zizkion defendatzeko. Ardiari, ordea, naturak eman zion bakarra taldea eta alde egiteko gaitasuna izan zen. Orduan, ez da tuntuna; egiten duena da bere bizitza arriskuan ez jarri eta gustatzen ez zaion zerbaiten aurrean

taldean bildu eta alde egin. Bere estrategia da.

Ahuntza ere ez da gaiztoa. Zergatik egiten du salto hesi baten inguruan jarritakoan? Gaiztoa delako? Ez, kuriositatea duelako eta horri gehituta, eskalatzeko eta oreka mantentzeko abilezia.

Eta txerria ere ez da zikina. Base-rriko animaliarik garbiena da. Zeren txerriak ez baitu inoiz kakarik eta txizarik egiten ukuilu barruan. Kanpora ateratzeko aukera baldin badauka, kanpoan egiten du.

Horrelako kuriositateak, kontu harrigarriak, baina egiak ezagutzeko aukera ematen du Abeletxeak. *Mila bizidun ditu Ekoguneak* tailerreko kontuak izan dira horiek. Baina tailer gehiago ere badaude aukeran:

### Haur Hezkuntzan

- Artoterapia eta oiloak bazkatu
- Nortzuk behar dugu ura?
- Bero egoteko beroki desberdinak
- Mila bizidun ditu Ekoguneak

### Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailan


- Gorotzengatik desberdinduko dituzue!
- Nortzuk behar dugu ura?
- Bero egoteko beroki desberdinak
- Mila bizidun ditu Ekoguneak

### Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan


- Abeletxearen aztarna ekologikoa

### Bigarren Hezkuntzan

- Animalien erabilera hausnartzen



Iturria: Kutxa Ekogunea.



### Abeletxea Kutxa Ekoguneko hezkuntza eskaintza

**Ordutegia**  
10:00-15:00

### Kontaktua eta izen-emateak

Tel.: 943 552 020  
hezkuntza@ekogunea.eus  
www.hezkuntza.ekogunea.eus

### Prezioak

1 ekintza: 5 €  
2 ekintza: 7 €/ikasle\*  
3 ekintza: 9 €/ikasle\*

\* Osatzeko aukeran eta doan: haur parkea, geocatching, eathink jokoa, baratze-eskola, bisita autogidatuak...  
\* Abeletzeko tailerrez gain, gainerako tailerrekin konbinatzeko aukera dago.

Tailerren iraupena ordubeteko da.

### Kokapena

Errekalde-Hernani errepidea z/g  
(GI-2132, km. 2)  
20009 Donostia

# ATZEKO ATETIK



## OROIT NIZ

MAIKA ETXEKOPAR ANTZERKILARIA ETA KANTARIA

**O**roit niz ama eskolan dena zela eskulan, joko, kanta eta dantza. Plazera. Taldea eta sormena lantzen ikasteko denbora baginuela.

Oroit niz ama eskola ondoko udako oporren azken gauean zer negarrak egin nituen, handiagoen gelara joaiteko beldurrez, benetan ikasten hasteko beldurrez.

Oroit niz gure errejent batek gelan bakarrik utzi gintuela ikasleen artean ginuen arazo baten konpontzeko. Lehen asanblada.

Oroit niz gure errejent horrek bizikletaz Gurs-eko kontzentrazio esparrura eraman gintuela, eta beste behin berekin mendi lainotsu batean galdu ginela, bai eta nola kobazuloetan espeleologia eginarazi zigun. Abenturazalea hura.

Oroit niz nola harekin ginuen gure bihurrikeria ikertu, probatu, garatu, landu, eta zer plazera emaiten zigun.

Oroit niz nola urte batzu berantago inspekzio baten ondotik errejent hura Hezkunde Nazionaletik kanporaturik izan zen. Alta besteekin bezainbeste ikasi ginuen harekin, desberdinki bazen ere, ez hain akademikoki.

Oroit niz nola lehen mailako an-

dereño batek gu baino handiago zen neska bat belarritik tiraka txikien gelara botatzen zuen erranez «hara, hemen da zure lekua, txikiekin». Neska horrek izigarriko arazo sozial, familial eta psikologikoak bazituen, eta eskolan helduen mespretxu eta bortizkeria ere jasan behar.

Oroit niz bazkalondoan etxetik itzultzen nintzanean ene ikaskideek ene lagun hoberena izkutatzen zidatela, gaixorik etxera sartu behar izan zuela sinetsaraziz, bakarrik egon behar izatearekin ene beldurrarazteko.

Oroit niz ni baino gaztexeago zen mutiko bat kantina aurrean zegoen ixtil handian pusatu nuela, eta bere anai handiak mendekuz jo ninduela.

Oroit niz kantina eta gero elgarren artean borrokatzeko hitzorduak finkatzen gintuela, arazo batzuen konponbide gisa.

Oroit niz erakasleengandik ikasle ona nintzalako irudia jasotzen nuela, eta erantzun on bat asmatzen nuelarik andereñoari belarrira erran behar nio-la, besteek bilatzen jarraitzen zuten bitartean.

Oroit niz lehen mailan jadanik maitemintzen ginela, eta nola!

Oroit niz, nahiz eta ikaraturik izan, zer harrotasun eta axolagabekeri

faltsuarekin Xiberotik abiatu ginen hamaika urtetako bost neskatxa Kanbo-ko kolegioko barnategira.

Oroit niz ordutik aurrera zoin luze iduritu zaizkidan bost eguneko asteak, bakardade eta lasaitasun gabeko egun amaiezin bakar bat balitz bezala, emozio eta gure arteko ixtorioz beterik.

Oroit niz nola aski bertan barnategitik gurasoei egiten zitzairen aste-erdiko telefono deiari uko egin nion. Astea etxetik kanpo igaraitekotan, osoki izan behar zuen, etxeari batere pentsatu gabe eta gogor eutsiz.

Oroit niz nola hamaika urtetan jadanik ideia hau buruan zohitzen hasi zitzaidan: handituko naizenean, beste gisako eskola bat asmatuko dut. Gogor bizitzen nuen nerabezaro nahasiaren bai barneko eta bai taldeko basakeria hortarik deszentratzen eta kanalizatzen lagunduko gindukeen eskola bat.

Oroit niz lizeoan tontotzat geneukan Historiako erakasle batek gelatik kanporatu ninduean baliogabe iduritzen zitzaidan zerbait kopiatzen ez nuelako, taldearen erdia ene atzetik atera zela, elkartasun eta oldartze marka gisa. Lehen talde altxatzea.

Eta beste gauza hanitxetaz.



## 0-3 urte bitarteko hezitzaileentzako prestakuntza (6. promozioa)

*Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakontzeko asmoz, 250 ordutik gorako bi urteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean Hik Hasi-k. Hainbat oinarri izango ditu formazio horrek:*

**Emmi PIKLER; bestelako zenbait pedagogia BERRITZAILE: Loris Malaguzzi, Rebeca eta Mauricio Wild, Maria Montessori, Angelica Olvera, Rudolf Steiner...; formakuntza pertsonala, etab.**

*Ikaslerro borieta gaian adituak diren Euskal Herriko nabiz kanpoko beitzatleek emango dute prestakuntza.*

**Informazio osoa eta izena emateko aukera:**

**[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)** helbidean



**2018-19 ikasturterako egutegia: 125 ordu**

IRAILA 2018						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

URRIA 2018						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29						

AZARRIA 2018						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

**BIDPEN SAIOAK/  
JOLAS SAIOAK**  
**SAIO TEORIKO  
PRAKTIKAK**

ABENDUA 2018						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

URTARRILA 2019						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

OTSAILA 2019						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

**OSTIRALEAN:**  
Setatik Betara

**LARUNBATEAN:**  
Goizez:  
9.30- 13.30.  
Arratsaldean:  
15.30-18.30.

MARTXOA 2019						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

APIRILA 2019						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAYATZA 2019						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

**EKAINA**

L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21